



# ARGIA



## Herri honen irrintzia

KORRIKA 22 JARRAIPEN BEREZIA

26-31. orriak

# 2.775 | 2022 / 04 / 17 | 4,00 €



**Macron garaile  
Ipar Euskal Herrian,  
Melenchon bigarren**

6 | FRANTZIAKO HAUTESKUNDEAK



**"Errusiatik alde  
egiten ari da  
oposizio guztia"**

16 | NATALIA NIKULENKOVA



**LARRUN #273**  
**Munstro  
populistak**



# Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

[argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka) 943 37 15 45

## JAKOBA ERREKONDOREN SAIOAK

**Apirilak 22**, 18:00  
Muxika · Zubieta Errota

Hitzaldi-kontsultategia: baratzea, lorategia, fruitu arbolak, basoa eta etxeko landareak.

**Apirilak 24**, 11:30  
Aia · Iturrarango Landare eta Lore Azoka

Etxeko Landareak liburuaren aurkezpena eta kontsultategia Iturrarango Landare eta Lore Azokan.

**Apirilak 26**, 18:30  
Abadiño · Kultur Etxea

Hitzaldi-kontsultategia: baratzea, lorategia, fruitu arbolak, basoa eta etxeko landareak.

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
AEK

## Iritziak

- 21 | BALEREN BAKAIKOA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | LAURA PENAGOS
- 23 | EVA PEREZ-PONS
- 24 | MAIALEN ARTEAGA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: MIRARI MARTIARENA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



### 12 | ZIENTZIALARIEN MATXINADA

zabalduz eta indartuz doa, klima larrialdiaren aurrean politikariak neurri eraginkorrak hartzera bultzatzeko asmoz. Jenofa Berhokoirigoinek Net Hurbil sailean azaldu du desobediencia zibil bakezale hau zertan den, eta gure bizimoduak zer pisu duen klima aldaketan. Nola bizi beharko dugu aurrera begira, Lurra bizigarri izan dadin?

## Elkarrizketak eta erreportajeak

16 | PERTSONAIA | NATALIA NIKULENKOVA

### “Gerraren aurkako mugimendua erabat klandestino bihurtu da Errusian”

Vasilisa Petrovna

26 | KORRIKA 22

### Euskaltzaleok behar genuen arnasa

Leire Artola

37 | KIROLA | PAU LOZANO

### “Pirinioek etorkizun hobea merezi dute, Bartzelonaren jolas-parkea izatea baino”

Jon Torner

44 | KULTURA

### “Alda Merini: harriduraz begiratzeko ahalmena”

Ainhoa Aldazabal

52 | ARGI-KONTRA | MIRARI MARTIARENA

### “Barrea ez dela eten behar esango nuke”

Aitziber Zapirain



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**Jabetza**  
Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

**Lehendakaria**  
Onintza Irureta

**Erredakzioa**  
Amalia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estixu Eizagirre,  
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien,  
Jon Torner, Lander Arbelaitz,  
Leire Artola, Mikel Garcia,  
Onintza Irureta, Pello Zubiria,  
Peru Iparragirre, Urko Apaolaza,  
Xabier Letona, Zigor Oleaga

**Diseinua**  
Maitane Gartzandia

**Argazkilaria**  
Dani Blanco

**Produkzioa eta inprimaketa**  
Antza S.A.L.

**Administrazioa**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

**Salmenta**  
Karlos Olasolo, Olatz Korta,  
Pello Basurto

**Azoka**  
Mikel Olabide

**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza

**Web garapena**  
Asier Iturralde

**Informatika**  
Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**  
SS 837-2012

**ISSN**  
0213-909X

**Batzorde parekidea**  
72562 E

**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**

**Posta elektronikoak**  
komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

**Telefonoa**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko ideia da ARGIA  
honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.




Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



# Elkartasunaren ifrentzua

Moldaviako familiek Ukrainako familiak jasotzen dituzten bitartean, alderdi politikoeek errefuxiatu guztiak jaso behar direla dioten bitartean, Vox bezalako taldeek errefuxiatu horiek eskolatzeko beharraz hitz egiten duten bitartean, migratzaileak iristen diren lehen tokietan harrera-herrialdeen arabera banatzen dituzten bitartean, eta Moldaviako etxeak ilehoriko familiaz betetzen diren bitartean; kiroldegi bat ireki dute, ijito jatorriko familia ukrainarrak sartu eta lo egin dezaten, pilotuta. Asilo eskubidea duten pertsonak etniaren edo erlijioaren arabera sailkatzen dituzte, lehen eta bigarren mailako migratzaile bihurtuta. Ultraeskuindarrei hain errentagarri zaien diskurtso xenofoboa politika publikoetan praktikara eramana. Irudian, aterpetxe bilakaturako kiroldegia Chisinaun, Moldavian.


 EDU LEON











# Frantziako lehendakaritzarako hauteskundeetan lehen itzuliari so

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

## Macron eta Le Penen artean iraganen da bigarren itzulia, 2017ean bezala

**D**uela bost urtekoa errepikatuko da apirilaren 24an: Emmanuel Macronen eta Marine Le Penen artean izanen da lehia. Haatik, lehen itzuliko emaitzei begiratzuz gero, aurreikustekoa da alde estuagoa izanen dela bien artean. 2017an Macronek %66 eta Le Penek %34 jaso bazuten, aldi honetarako oso hurbil kokatzen dituzte lehen zundaketek: Ifop zundaketa institutuaren arabera %51 luke Macronek eta %49 Le Penek; Opinionway edota Ipsos-en arabera, %54 Macronek eta %46 Le Penek eta Elabe-ren arabera, %52 Macronek eta %48 Le Penek.

Botoen %21,95 bildurik, doi doietarik kokatu da hirugarren ezker muturreko Jean-Luc Melenchon, eskuin muturreko hautagaiarekin soilik 0,8 puntuko alde ukanez. Nahiz eta 2017an baino emaitza hobekoak lortu –bi puntu gehiago–,


beste behin ere ez da bigarren itzulian egongo. Apirilaren 24ari begira, Le Peni botorik ez bideratzeko dei argia egin die bere hautesleei. Pentsa zitekeen bezala, ez du Macronek alde bozkatzeko dei argirik egin. Mezu bera zabaldu dute ezker muturreko Fabien Roussel komunistak (%2,31) eta Philippe Poutouk (%0,77).

Eskuin muturrari bidea mozteko Macronek alde bozkatzeko deia egin dute, ordea, Alderdi Sozialistako Anne Hidalgo (%1,74), Yannick Jadot ekologistak (%4,48) eta eskuineko Les Republicains alderdiko Valerie Pécressek (%4,79). Le Penen alde bozkatzeko deia argia egin dute, haatik, Eric Zemmourek (%7,05) eta Nicolas Dupont-Aignanek (%2,07).

Nola ez, abstentzioa izan da hauteskunde horietako garailetarikoa: lau bozkatzailetarik bat ez da joan bozkatzera.

### ESKUIKIN ETA EZKER HISTORIKOEN PORROTA BORTITZA

2017an sortu zuen La République en Marche alderdia Macronek, politika egiteko modu zaharrarekin haustura hitz emanez –bost urte geroago argi gelditu da ez dela hausturarik egon–. Bozketa honetan agertu da ezkerreko eta eskuineko alderdi klasikoaren bukaera: ez du bat ez besteak %5aren langa gaintitu –Alderdi Sozialistaren 2017ko porrota are bortitzagoa izan da aurten %6,36tik %1,74ra pasaz; eta eskuina %20,10tik %4,79ra jeitsi da–. Macron indartsu ateratu da, 2017an baino emaitza hobekoago eginez eta parean ditu bi muturrak: Le Pen eta Melenchon. Irabazteko, ezkerreko botoak beharrezkoak izanen ditu Macronek. Sekula baino gehiago, abstentzioak ukanen du eragin handia bigarren itzulian. ●







## Ipar Euskal Herrian, Melenchon bigarren

Ipar Euskal Herri mailan ere lehen atera da Emmanuel Macron, botoen %28,7 jasorik. Haatik, Frantziako Estatuan ez bezala, Jean-Luc Melenchon kokatu da bigarren, %18,26 eginik, eta hirugarren, berriz, eskuin muturreko Marine Le Pen –botoen %15,67 jasorik-. Bai, emaitza onak jaso ditu ezker muturreko Melenchonek, tartean, lehen kokatuz Hendaian eta Biriatuan, baita Nafarroa Behereko eta Zuberoako hainbat herritan ere (Lakarran, Arrosan, Izpuran, Alozen, eta abar). Izan Baiona, Angelu, Miarritze, Donibane-Garazi, Baigorri, Donapaleu ala Maule, hiri nagusietan nagusitu da orain arteko presidente Macron. Parte hartzea %77,69koa izan da Euskal Herrian, Frantziako Estatuoko parte hartze orokorrari alderatuz, hiru puntuz handiagoa.

Zentro-eskuineko Jean Lassallek egindako emaitza ere dago nabarmentzekoa: %11,61 jaso du Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan, Frantziako Estatuoko emaitza orokorra ia laukoiztuz. Lapurdi kostaldetik urrundu eta mendi aldera sartu arau emaitzak are hobekatu dituzte hautagai biarnesak: lehen atera da Atharratzen (%28,29), Urepelen (%41,76), Lekunberrin (%25,60) zein beste herri ttipi anitzetan; eta bigarren zein hirugarren herri askotan. Azkenean, Frantziako Estatu mailan hiru alderdi ezberdindu baldin badira –Macron, Le Pen eta Melenchon–, Ipar Euskal Herrian laugarren bat gehitu zaie: Lassalle.

Bestelakoentzat, gutxiago ala gehiago, Frantziako Estatuoko joera bera sentitu da: hautagaitza historikoak izandako Alderdi Sozialista eta Les Republicains eskuindarra ahuldurik atera dira –%2,05 ezker historikoarentzat eta %4,91 eskuin historikoarentzat-. 2017an eskuin historikoak %23,11 egin zuen Euskal Herrian, hots, sekulako porrota du aldi honetakoa. Hori horrela, lehen aldikoz, Le Pen kokatzen da orain lehen hiru indarren artean.

Eskuin muturrean zegoen bigarren hautagaitza Eric Zemmourek %6,93 egin du. Hots, Ipar Euskal Herri mailan %22ko sostengua du eskuin muturrak. Le Pen lehen indarra atera da hainbat herritan: Gixunen (Lapurdi), Bidaxunen (Nafarroa Beherea), eta Zuberoako Etxarrin, Xarrikotapean eta Lixozen.

Ekologistek emaitza apala jaso dute, nahiz eta Frantziako Estatu mailan ez bezala, %5aren langa sinbolikoa gainditu duen Yannick Jadotek.

Ikusteke dago orain bigarren itzulian nora joko duten lehen indarren artean kokaturiko Jean Lassallen eta Jean-Luc Melenchonen hautesleek. Hain zuzen, Lassallek ez du bozka konsignarik eman, eta ezker muturrekoak Le Penen alde ez bozkatzeko deia egin arren, ez du Macronen alde bozkatzera deitu. ●



“Gaullista naiz, ez ditut Batasun Nazionalaren hautagai Le Penen baloreak partekatzen. Hautesleak erabakimen askatasuna izanik, ez dut konsignarik ematen, baina pertsonalki Macron bozkatzeko dut apirilaren 24an”.

**Max Brisson**

senatari miarritzarra



“Hogei urte pasa eta gero, berriro ere. Oroz gainetik errepublikarra, Emmanuel Macronen alde bozkatzera deitzen dut. Aitzinamenduan dabilzan emakume eta gizonen batasunaren alde eta atzera egitearen aurka”.

**Frederique Espagnac**

Euskal Herriatik senataria



“Ez daukat hauturik egin beharrik, ez dagoelako hautatuko nukkeen aukerarik. Ez da espero nuen buruz burukoa izango, eta funtsean, frantsesek gogoz kontra hautaturiko buruz burukoa daukagu hor”.

**Jean Lassalle**

hautagaia eta Biarnoko diputatua



# Macron ez dute boto bidez zigortu korsikarrek

Lehen indarra atera da Korsikan eskuin muturreko Marine Le Pen, botoen %28,58 jasoz. Bigarren kokatu da Emmanuel Macron, hamar puntuko aldearekin. Hori horrela, duela bost urtekoa errepikatu da, Le Pen garaile ateraz, baina, aldi honetan ez da bigarren kokatu Les Républicains eskuineko alderdi historikoa -%6,33 egin du Valérie Pécressek, hots, 2017arekin alderatuta 19 puntu galdu ditu-. Emaiza berdina egin du Macronek. Hori horrela, erran daiteke korsikarrek ez dutela zigortu orain arteko Frantziako Gobernua. Alta, korsikarrak karrikara atera dira behin baino gehiagotan haien haserrea entzunarazteko, Yvan Colonna preso politikoaren heriotzaz geroztik.

Core in fronte eta Corsica Libera alderdi independentistek hauteskundeak boikotatzeko deia luzatu zieten herritarrei -Korsikako alderdi autonomista nagusiek ez zuten dei hori plazaratu-. Duela bost urte baino handiagoa izan da abstentzioa: %37 ingurukoa eta 2017ari alderatuz, bost puntuz emendatu da.

Hirugarren kokatu da Jean-Luc Melenchon, %13,37 jasoz.

## KOLONIA OHIETAN, MELENCHON

Haatik, Frantziaren kolonia izandako lurraldeetako bozketa Hexagonokotik ezberdina izan da. Hainbat lurraldetan ezker muturra da garaile atera. Martinikan, Guadalupen eta Guyanan %50aren langa gainditu du Melenchonek, 2017ko emaitzak bikoiztuz. Macronek, haatik, ez du sostengu handia jaso: Martinikan %16,30, Guadalupen %13,43 eta Guyanan %14,22.

Polinesia Frantsesean eta Kanaky edo Kaledonia Berrian ez du gisa horretako sostengua jaso ezker muturra eta Macron atera da garaile. Hala ere, abstentzioa izan da protagonista nagusia: Kanakyn soilik %33,35 joan da botoa ematera eta Polinesia Frantsesean %23,78. ●

## ANALISIA



# Ezkerra, muturrean

## JENOFA BERHOKOIRIGOIN

2017 jaso zuen zafraldia Alderdi Sozialistak: 2012an garaile ateratako alderdiak soilik botoen %6,36 jaso zituen. Apirilaren 10 honetan berretsi egin da ezkerreko alderdi historikoaren porrota: %2aren langa ez du gainditu. Aldatu delako ezkerria, ezkerrek eskuineruntz egin duelako. Baina herritar ezkertiarra badago eta 2017an bezala, ezkerren muturrean kokatu da. Jean-Luc Melenchonek botoen %21,95 jaso ditu eta 0,8 puntugatik ez da pasa bigarren itzulira. Doi doia %10era heltzen da ezkerreko beste alderdiek jasotako botoen batuketara.

Hori horrela, berriro ere hor dago eskuin muturraren mehatxua eta 2002an zein 2017an bezala, gogoz kontra, *vote utile* edo boto baliagarria egin beharra dauka ezkertiarrek: eskuinarentzat bozkatu eskuin muturra oztopatzeko. Kontua da duela bost urte ez bezala, badakigula zein den Macronen benetako aurpegia eta argi gelditu dela eskuineko politikan dabilela, ultra liberalismoan tinko. 2017an eskuin muturrari bidea mozteko bere alde egin zuten ezkerreko guztien botoak ez ditu jasoko aldi honetan. 2002an eskuin muturraren garaipenak sortu sorpresa eta izuagatik, herritarra mobilizatu eta %82,21ak egin zuen boto bidez Le Penen kontra; 2017an, berriz, %66,10ak. *Vote utile* horrek zer nolako lekua hartuko duen, horretan dugu bi itzulien arteko misterio nagusia. Abstentzioarena dugu bigarrena. 2002an eskuin muturraren kontrako manifestazioak izan ziren bi itzulien artean. Hogei urte pasa dira eta ohikoa bilakatu zaigu eskuin muturra lehen itzuliko garaileen artean kokatzea, eta manifestazioak denborarekin desagertu dira. Alta, Le Pen boterera iristeko aukera handituz doa urtez urte.

Melenchonen hauteslegoaren zati batek Le Penen alde bozkatu du ere. Ezkerra ala eskuina, muturraren hautua eginen duelako multzo batek, aldaketa gose, egunerokoan pairatu beharreko zailtasun sozioekonomikoaz nazkatuta. Hori badaki Le Penek ere, eta bi itzulien artean Melenchonen bozkatzaileei zuzenduko zaie: "Diruari ala pertsonari, zeini eman nahi diogu boterea? Horretan dugu auzia. Demagun, zer garrantzi ematen diogun ahulnekiko elkartasunari, eskubide bermatuak izateko aukerari edota erretiroan osasuntsu sartzeari", zioen lehen itzuliko emaitzen balorazioan. Herritar xumearen miseriatik irabaziak atera nahian dabil Le Pen, eskuin muturra egin ohi duen gisara.

Macron eta Le Penen arteko bigarren itzulia ez da sorpresa bat, ordea, eta ezkerreko alderdi ezberdinen artean ez adostu izanaren bestondoa dute orain ezkerrekoek. Alta, batasuna osatzen saiatu ziren primario popularren sustatzaileak iaz. Baina, Melenchonek, Jadotek, Hildagok eta Rousselek ezezkoa eman zioten primarioak irabazi zituen Christiane Taubiraren hautagaitza sostengatzearen proposamenari. Ezkerra krisian da munduko hainbat herritan bezala Frantziako Estatuan ere. Herritar ezkertiarren nahiak eta aholkuak entzun eta autokritikatik aldaketa batzuk bideratzeko behar gorria du ezkerrek. Ezkerra ez bezala, bakarrik aurkezturik ere, indartsu direlako Macron eta Le Pen. Aurten ez du egin nahi izan. Ea ondokorako ikasten duen. ●

# Existitzen direla



ARITZ GALARRAGA


**S**usan Sontag, egia esan, osoki da interesantea, ez soilik faxismoari buruz idatzi zituenengatik. Gaur-gaurkoa da gainera, kezka nagusi izan baitzuen lengoaiaren eta errealitatearen arteko harremana, era berean kontso-lagarri eta suntsigarri izan dakigukeen lengoaia. Irudizkoa, adibidez, egunotan hain presente, gertatu ahala, ohiko entretenimendu etxetiar modura, kontsumitzen ditugun bataila eta masakreekin. Hain zuzen, sufrimendu-irudiak begiratzeko daukagun moduaren definizio berri bat galdegin zuen Sontagek, zer egin beharko genuke irudi horiekin. Liburu denda batean ikusi zituen Holokaustoarenak, hamabi urte zituela. Bizitza guztia emango zuen, hartara, liburuz liburu, galdetuz min hori nola erretratatu, nola eraman daitekeen.

Izan ere, zer dio irudi batek erakutsi nahi duen objektuari buruz; irudiak okertu egiten badu egia, intimitate faltsu bat eskaini: "eraso inplizitu bat dago kameraren erabilera guztien atzean". Argazkiek ahalbidetzen dute errealitatea, are besteren sufrimenduaren errealitatea, kontsumo-ondare bezala biltzea. Argazkiak egiteak harreman voyeur bat ezarri du munduarekin, gertaera guztien esanahia berdindu, parekatzen duena. Eta argazki berak, segun eta noren begietan, gauza bat edo bestea, are kontrakoa esan nahi izango du; besteen minaren gaineko begiradaz ari garela, ezin dugu esan "guk".

Kurioski, Sontag bera ere bilakatu zen bere irudiaren gatibu, Estatu Batuetako azken izar literarioa, Benjamin Moser biografoak definitu bezala. Hori bai, tristezia, abaildura gerturatzen ikusten zituen bakoitzean, lehen bulkada izaten zen liburu baten orrialdeen atzean ezkutatzeari, zinera joatea, operara. Ezen beti defendatu zuen kulturaren iraunkortasuna, indiferentziak eta krudeltasunak hartutako mundu batean esperantza iturri gisa. Kulturaren helburuetako bat, besteak, gugandik desberdin direnak, egiazki existitzen direla ikusaraztea baita. ●

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com

## ABERRI BAT, HAMAIIKA ABERRI EGUN...



ADUR

## Motzean

Donostiako Liburutegi nagusiari Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren izena jartzeko hainbat idazlek abiatutako prozesua bertan behera utzi dute, Udalaren jarrera ikusita.

Gazte Euskaltzaleen Sareak manifestazioa deitu du maiatzaren 21erako. "Euskal Herriaren etorkizuna euskaraz imajinatzen duten herritar guztiak" deitu dituzte parte hartzera.

Ekainaren 4rako antolatu dute Baltzan elkarateak eta ARGIAK elkarlanean Ziburuko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Hirugarren edizioa du eta 33 argitaletxe hartuko ditu aurten.

Polonian preso duten Pablo Gonzalez kazetaria askatzeko lan egin dezatela eskatu diete instituzioei dozenaka euskal kazetari eta hedabidek, elkarrekin kaleraturiko manifestuan.

Euskara teknikaria duen Ipar Euskal Herriko laugarren herria izango da Urruña, Biarritz, Baiona eta Hendaiarekin batera. Beste hainbat herritan ere ari dira horretarako lanean.

Nekane Txapartegi etxean da, Asteasun, hamabost urte eta gero. Dokumentu faltsutzea leporatuta epaituko dute Madrilan, baina ez diote kautelazko neurririk ezarri.



# Agonian



ULA IRURETAGOIENA

**A**lvoro Siza, Pritzker saridun arkitekto portugesak esan berri du arkitektura agonian dela. Baieztapena justifikatzen duen argudioa da gizarteak arkitekturarekiko duen balorazio eskasa, ordainsari baxu eta merezimendu ahultan ispilu dena. Adibidez, turismoaren erakartze publizitatean bisitatu beharrekoen zerrendan arkitektura historikoko obrak badaude, hirietako zentroetan kokatuak egongo dira. Periferian eta lengoia arkitektoniko garaikidea aurkezten duten obrak gainera ez da izaten, jakintza kultural *mainstream*-era iritsi diren Le Corbusier eta Mies van der Rohe arkitektoen obrak salbu. Arkitektura garaikideak ez du fama onik eta itsusiaren kategorian sailkatuak egon ohi da. Gaur egun ekoizten diren espazio eta eraikinak maitatzeko zailtasunak arazo baten berri ematen du. Arkitektoek diote “jendarteak kultura arkitektonikorik ez duela”, eta jendarteak dio “arkitektoak nabarmenkeria bilatzen duela bere irudia puzteko”. Bieta-tik zeozer badela esango nuke.

Agoniarako beste elementu garaikide bat da eraikuntzako materialen garestitzea. Lerroburu gutxi erakarri du egur, ate edo ikuzgailuen prezio igoera eskandalagarriak. Egoera ulertzeko klabeengatik galdetuz gero, inork ez du argibiderik, dagoeneko urtebeteko krisia igaro dugun arren. Prezioaren igoerari prezioaren ezegonkortasuna gaineratzen zaio, eta eraikin baten lanak egiterako unean, burutu behar denaren prezioa aldakorra izatea oso gai larria da; nola abiatu lan bat bere kostu finala jakin gabe, edo zer egin, eraikitzeko bidean egituraren prezioa bikoizten bada. Aurreikuspen handiagoa eskatzen du egoera berriak, eta aurrez materiala biltzeko, ezer abiatu baino lehen sakon landuta egon behar du egin beharrekoak.

Agian Sizak dioena da orain arteko egiteko moduak agortzen ari direla, ulermen mailan eta materialki ere bai, eta sistemaren iraultzean arkitekturaren birdefinizio bat jaio daiteke, eraikinak maitatzeko beste leku batzuen sorrera alegia. ●



## Partekatu ala erail

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**U**rak nahieran eta nahi tenperaturan ateratzeari utziko dio luze gabe”, pentsatzen dut aldiro sukaldeko edo dutxako iturriak irekitzerakoan. “Etxean hotzarekin bizitzen ikasi beharko dugu”, berogailua piztean. “Gasteiz bezalako hiri ertainetan ere bilakatuko al da bizitza materialki ezinezko?”, erosketak egitean. Nola egingo dugu lan ARGIAN gasolina eskasiagatik maiz elkartzetik ez dugunean, edo dozenaka mineral eskasun gailu elektronikoak luxu bihurtzean?”, autoan lantokira, Lasartera, noala. “Esportatzen ari gauden gerrak gure etxeko atea joko al du?”, Ukrainari begira. Pentsamendu errepikakorrak.

Heldu da. 2008an hausnartu genuen auzoan, “zeturtenarekin”, eraldaketa bultzatu behar genuela jai herrikoiak antolatuz edo espazioak okupatuz baino gehiago guztiontzako elikadura eta etxebizitza borrokatuz, baztertuak biderkatuko zirelako –baztertuak “besteak” izaten jarraituko bazuten ere-. 2015ean *La espiral de la energía* entziklopedikoaren irakurketak “gertu genuenarekiko” hotzikarak eragin zizkidan. Auzoko elikadura sarea sortzeko prozesuaren erdian piztu zen pandemia, eta lehenbizikoz sentitu nuen oinarriko beharren asetze komunitarioa “besteak” ez ezik nire beharrak asetzeko erreminta bilakatu zitekeela “bihar”. Energia krisiak, kaos klimatikoa, gerrak eta migrazio masiboak, hornidura arazoak... Kolapsoak irakurtzea ariketa intelektuala zen atzo; errealitate ukigarria da gaur: iraultza E egun epikoan hasi eta amaituko ez den modu berean, kolapsoa ere prozesua baita.

Pentsatzen dut, baikortasun gehiegiz akaso, erraza litzatekeela ditugun-datozen arazoetako askori konponbidea jartzea: partekatuz, kolektibizatuz, gutxituz, berrerabiliz... Biziraupena ez ezik, bizipoza ere ekarriko liguketela aldaketa horietako askok. Ikusten dut Europa, hauspotu duen gerra baten beroan aurrekontu eta balore militarrik biderkatzen, eta pentsatzen dut, ezkortasun gehiegiz nahiko nuke, ez dela egon historian talde dominatzaileak goian egonik behera egitea “kiroltasunez” onartu duenik: gu europarrok ez gara hobeak izango, gerraren bitartez lortutako pribilegioak gerran sakonduz defendatuko ditugula, sarraskia ‘antzia’ izango bada ere hegemonia galerak ez baitu atzera bueltarik.

Gure eliteen agenda argia da. Zer egingo dugu herritarrok? Are, zer ezkertiar usteko herritarrok? Eliteen orpotik jarraitu ugertzen jarraituko duen gure urrezko kaiola –kaiola, baina urre kolorekoa; urre kolorekoa, baina kaiola– etsian defendatzeko? “Baliabideak gutxitzen doazen jendarte batean, edo inoiz ez bezala partekatzen ikasten dugu, edo inoiz ez bezala hilko dugu elkar”, idatzi zuen Emilio Santiago Muiñok. Buelta erdia hartu, eta ekin diezaiozun partekatzeari. Partekatzea posible egingo duten egunerokotasunak, desioak, etikak, egiturak, antolakundeak sortu eta indartzeari. ●

## TEKNOLOGIA

# Zaugarritasun digitalaz



DIANA FRANCO

**A**zken bi urteetan zaugarritasun digitalaren inguruan lan egiten aritu naiz, eta ohartu naiz arrakala digitalak ez dituela biltzen bazterkeria digitalean egoteko arrisku guztiak. Arrakala digitalaz hitz egiterakoan eremu digitalaren aprobetxamendurako aukerak aztertzen dira: azpiegiturak erabiltzeko, gailuak erabiltzeko, ditugun eza-gutzak (konpetentziak...), teknologiarekiko dugun harremana...

Nolabait, arrakala digitala murrizteak berearekin dakar pertsonak gai izatea eremu digitalak garai bakoitzean ematen dizkigun aukerak erabiltzeko. Aukera hauek aldakorrek dira, beraz arrakala digitalaren forma nahiko mutantea da, une oro azertu beharrekoa.

Baina zelan definituko genuke pantailatik begiak ezin kendu bizi den pertsonaren egoera? Eremu digitalean bortizkeria pairatzen duenarena? Bazterkeria jasaten ari denarena?.... Hori ere ez al da arrakala digitala? Behin, Ane Ortiz de Zarate sexologoari zera entzun nion: "Errealitatea dena da". Hau da, askotan mundu erreala eta digitala den beste mundu horretaz hitz egiten dugu, gure denbora eta indarrak eten egingo bailiran hor gaudenean, gure bizitzetan eraginik ez balu bezala. Baina eskaintzen dizkiogun neurrian hartuko ditu eremu digitalak gure denborara eta indarrak. Joan den astean lantegi baten itxieran langileek honakoa adierazi zuten: "Bortizkeriak egokitzeko ahalmena du".

Hots, ardurak ez du soilik zerikusia arrakala digital tekniko eta konpententzialekin, kontuan hartu behar da eremu digitalean zelan, zertarako eta zenbat gauden ere. Eta horretarako, beharbada gure arrakala digitala ezagutzeaz gain gure zaugarritasun digitala ere ezagutu beharko genuke. Eremu digitalean dauden eragileen interes eta jokabideen aurrean gure zaugarritasuna hobeto ezagutu behar dugu. Hala, kontzienteki hasiko gara ulertzen noraino gauden prestatuta dugun digitalizazio eredu honi aurre egiteko, bere gauza onenak geureganatzeko eta txarrenak eragozteko, eta animatzen bagara, alternatibak eraikitzeko. ●

## NAZIOARTEA



## Bucha, Gernika eta antzerkia

**AXIER LOPEZ**

**N**azio Batuen Batzar Nagusiak Errusia Giza Eskubideen Kontseilutik botatzea erabaki du, egungo egoera geopolitiko oso grafikoki islatu duen bozketa batean. 93 herrialdek Errusia kanporatzearen alde bozkatu dute –Mendebaldeko nazio guztiak eta Hego Amerikako batzuek, nagusiki-. Beste 24 aurka azaldu eta 58 abstentzio izan dira. Aurkakoak eta abstentzioak batuta, munduaren gehiengoak ez du Errusiaren kontra egin, ez herritarren kopuru aldetik, ez lurralde hedaduraz. Gai honetan batusun itxura eman nahi bada ere, munduko egoera ez da inolaz ere horrela.

Errusiaren aurkako zigorretatik haratago, Ukrainatik iristen diren albisteek urdaila iraultzen jarraitzen dute. Azken aste honetan protagonista nagusia Bucha hiria izan da. Gorpuz jositako kaleetan hartutako irudiek munduari bira eman diote eta nazioarteko gaitzespena eragin dute. Han bertan dauden kazetariak, tartean euskal herritarrek, adierazten dutena hauxe da: Errusiako armada hiritik atera ondorengo panorama makabroa da. Gerra erabat mediatiko honetan, oraindik asko dago argitzeko. Berbarako, Mariupoleko ospitaleko bonbardaketaz Mendebaldeko hedabide nagusiek zabalduko bertsio ofiziala ezbaian jarri du Marianna Podgurskaya "argazkietako protagonistak" berak, baita Errusiak erasoaz esandako bertsio batzuk ere gezurtatu. Azkar sinestea ariketa arriskutsua da gerran.

*The New York Times* egunkariak ukrainarren bideo bat egiaztatu eta zabaldu du asteazkenean. Irudietan Ukrainako armadako hainbat kide agertzen da martxoaren 30ean Kieven bahitutako soldadu errusiarrak exekutatzen. Errusiako tropak zonaldeak alde egiten hasi ziren egunetan, Dmytrivka herrixkan – Buchatik 11 kilometrora-grabatuta egon liteke. Gorpu batzuk ageri dira eta nola ukrainar soldadu bat behin eta berriz tiro egiten dien. Gorpuak errepide gainean botata daude eta Errusiako armadaren zinta zuri bereizgarria dute. Hala balitz, Nazioarteko Zuzenbidearen arabera gerra krimena litzateke eta beraz, Ukrainara armak bidaltzeari utzi beharko lioke Mendebaldeak. Baina beleak ez du belakirik jaten. NATOren Jugoslaviako sarraskiak ala NBEko soldadu urdinen emakumeen bortxaketa ugariak, tarteko.

Bien bitartean, sarraski eta sarraski artean, Volodimir Zelenskiren *tournée*ak aurrera jarraitzen du. Bere herria, nagusiki Donbass, behin eta berriz bonbardatu duen presidente bategi, Gernika ekarri du gogora antzoki bilakaturako Espainiako Kongresuan, ezker eta eskuineko ikus-entzuleen txaloen aurrean. Ondoren Greziara joan da, eta han hitza eman dio Azov talde neonaziko soldadu bati, askatasunaz hitz egin dezan. Hemen ez bezala, han behintzat, eragile batzuk ez dira isilik geratu, tartean Syriza.

Ziurtasun ideologikoak zartaturik dauden garaioan, dena da posible. ●



# MATXINADA ABIATU DUTE MILAKA ZIENTZIALARIK, KLIMA LARRIALDIARI AURRE EGITEKO NEURRIEK EZIN DEZAKETELAKO GEHIAGO IRAUN

2020an abiatutako Scientist Rebellion edo Zientzialarien Matxinada mugimendua indartuz doa. Klimaren edota ingurumenaren arlotako milaka eta milaka zientzialari desobedientzia zibilari lotu dira, agintariei presioa egiteko asmoz. Badakitelako: gaurdanik bideratu beharreko aldaketa drastikoa dugu klima larrialdiari aurre egiteko bide bakarra. IPCC taldearen azken txostenak berresten digu urgentzia: berotegi gasen isurketek 2025ean jo beharko dute goia, ondotik azkarki apalduz. Bestela, ez dugu mundu bizigarririk ukanen.

## JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

**D**uda gabe, ekintza zuzenak bideratzen dabilen zientzialariei arreta gehiagorekin begiratzen zaie. Munduaren bukaeraren berri ematen baduzu eserita eta te kikera bat edanez, nekez sinetsiko zaitu jendeak. Karrikara atera behar gara, busti behar gara. Horrek erran nahi du lana galtzeko, atxilotua izateko edota gose grebaren eraginez osasuna arriskuan jartzeko arriskuak hartzea". Eskoziako Saint Andrews unibertsitateko doktore Michael Lynch Whiten hitzak dira. Fisikan aditua izateaz gain, bere laborategitik atera eta aktibismo-rako saltoa emandakoa: duela bi urte Scientist Rebellion edo Zientzialarien Matxinada mugimenduaren sortzaileen artean dugu. Extinction Rebellion-en izpirituari segi, desobedientzia zibil bidez baina erradikalaren bidetik da-

biltzan zientzialarien sarea izan nahi du mugimendu berri horrek.

"Ikerketa arlo ezberdinetatik egiazta-pen bera egiten dugu: gobernuak ez dute jakin klima eta ingurumen krisiei aurre egiteko ekintza eraginkorren bideratzen, nahiz eta urgentzia geroz eta handiagoa izan. Inertzia hori ezin dugu gehiago toleratu", irakurri dezakegu plazaraturiko idatzi kolektiboan.

Hori horrela, nazioarteko zein lekuan lekuko erabakitzaileei presioa areagotzeko asmoz dira ekintza zuzenari lotu. Milaka adituk egin dute haien jarduna politizatze eta klima larrialdiaren aurkako borrokan aktiboki sartzeko hautua. Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait irakaslek ere osatzen dute munduko hamaika herritan loraturiko kolektiboa. Orotara 30 bat herritan biderkatu dituzte ekintzak apirileko lehen astean, greba-

rako deia ere zabalduz lau haizetara. Espainiako Diputatuen Kongresuko paretak tindu gorritz estali zituzten, adibidez, 50 bat ekintzailek apirilaren 6an. Nagusiki munduaren iparreak bideraturiko ekintzen berri ukan badugu hemengo komunikabideen partetik, hegoko hainbat unibertsitatean ere bideratu dute matxinadarako deia.

"Publikatzen ditugun ikerketak agintariak irakurri arte eta klima krisiaren larritasunaz eta urgentziaz ohartu arte itxoin behar horrekin ezin dugu segitu", dio Rose Abramoff, AEBerako Oak Ridge laborategiko aditua. Justuki, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen seigarren txostenaren azken parte plazaratu den astean burutu zituzten ekintzak –berriz ere komunikabideen eta agintarien partetik arreta eta aipamen guxtiegi jaso duen dokumentu zientifikoa–.

**DESOBEDIENTZIA ZIBILA.**

Milaka zientzialari atera dira kalera apirilko lehen astean, Zientzialarien Matxinada mugimenduaren deia erantzunez.



Pazientzia handia behar dute datuak esku artean hondamendia badatorrela errepikatzen dabiltzan adituek. Pazientzia handia behar dute, aldaketarako bideak xeheki gogoetatu, marraztu eta aurkeztu ondoren, ondorioztatzeko beste behin ez direla kontuan hartuak. Badi-rudi pazientzia agortu zaiela, batez ere badakitelako denbora kontatua dugula: gaurtik ez baditugu gure kontsumo eta ekoizpen ereduak aldatzen, berantegi izanen dugu.

Aktibista izanik ere zientziaren objektibotasunak bere horretan segitzen duela azaltzen dabiltza mesfidati dituzten lankideei: "Aktibismoak ez du ikerlari gisa dudan independentzia zalantzan jartzen. Frogen analisi propio eta independentearen emaitza da nire aktibismoa: natura suntsitzen dugula frogatua da, eta

---

**Berotegi gasen isurketek  
2025ean jo beharko dute  
goia, eta ondorengo  
bi hamarkadetan  
nabarmen egin  
beharko dute behera,  
IPCCren arabera**

froga horiek sistematikoki gutxietsiak eta baztertuak ditugu. Horregatik dut

militantziaren erabaki arrazional hori hartu, aktibismoak duelako agintarien kontzientzia hartzea ekarriko", Ekologiaren eta Hidrologiaren Britainiar Zentroko James Bullock adituaren hitzetan.

**HIRU URTE BESTERIK EZ...**

278 zientzialarik idatzitako IPCCren dokumentuaren ondorio nagusienetakoa kezkarria da: berotegi gasen isurketek 2025ean jo beharko dute goia, eta ondorengo bi hamarkadetan nabarmen egin beharko dute behera. Hots, hiru urte gelditzen zaizkigu ekoizpen eta kontsumo eredu errotik berrikusteko. Ondotik, 2019ko datuekin alderatuta, 2030erako isuriak %43 murriztu beharko ditugu eta %84 mende erdirako. Horrela bai-zik lortuko dugu 2100erako planetaren tenperatura ez igotzea 1,5 gradu baino



gehiago industrializazioaren aurreko garaiarekin alderatuta -2 graduko igorran jartzen badugu muga, hurrenez hurren %27 eta %63 murriztu beharko dira isurketak-.

Gaurkoan segituz ordea, 2100 urterako 3,2 eta 5 gradu arteko emendioa aurreikusten dute txostenaren egileek. Noski denok ez dugu eragin bera eta hori ere ohartarazten du IPCCk: batz besteko, urteko CO2 isurketa pertsonako 19 tonakoa da Ipar Amerikan eta 3,9 tonakoa Afrikan... Zer pentsatua ematen du gureaz. Iazko abuztuko lehen zatian plazaraturiko txostenean beroketa efektuaren areagotze kezkarriaz informaturik eta otsailean, berriz, horrek litzuzkeen eraginak plazaraturik, hirugarren eta azken zati honek hainbat aterabide aurkezten dizkie munduko 195 gobernuiei. Horien artean, nola ez, energiaren arloko "trantsizio eraginkorra". Erregai fosilak dituzte jomugan: 2019ko datuekin konparatuta 2050erako %95 murriztu beharko dugu ikatz kontsumoa, %60 petrolioarena, eta % 45 gasarena.

Ukrainako gerraren testuinguruan,

Errusiako gas eta petrolioaren inportazioak gelditzeko Europar Batasunak daukan ezintasuna ikusirik, zaila zaigu irudikatzea gisa horretako eta berehalako petrolio eta gas kontsumo behe-rakada. Alta, hau da bidea: "IPCCren txostenak erakusten digu erregai fosilen desagertze progresiboa, berehalakoa eta justua daukagula estrategiaren pieza zentrala" dio Center for international Environmental Law-ko Nikki Reischek *Mediapart* komunikabideari.

Zentzu horretara, energia iturri berriztagarriak eta teknologia "berdeak" -tartean, CO2 xurgatzeko tresneriak- sostengatzeko neurri politiko ausartak eta erregai fosilen sektorerara bideraturiko finantza-fluxu pribatu zein publikoen gutxitze nabarmena dituzte txosteneko proposamenen artean. Trantsiziora bideraturiko finantzamenduek "hiru eta sei arteko emendioa behar lukete". Deshazkundearen terminoa ez erabili arren, kontsumo ereduarekin aldatzea gomendatzen dute: "Politika egokiak aurrera eramateak eta gure jarrera zein bizi estiloa aldatzeko modua ematen

duen azpiegitura eta teknologia egokiak edukitzeak berotegi efektuko gasen isurtzeen %40 eta %70 arteko murrizketa eragin dezakete 2050erako".


Baina aterabideak esku artean ukan arren, agintariek "immobilismoan" segitzen dute, eta horren ondorioz puztuz doa zientzialari aktibisten multzoa. Nazioarte mailan eta kolektiboki koordinaturik, aldaketarako beharra argiratzea lortu du Zientzialarien Matxinadak. Ez da fenomeno berria, alta, *Basta Mediarren Climat : 40 ans d'alertes des scientifiques et d'immobilisme de nos dirigeants* ("Klima: zientzialarien alertek eta agintarien immobilismoak 40 urte") erreportajearen kausituriko kronologiak argi uzten digunez.

**1956AN LEHEN ALARMA**

1956an jadanik, Gilbert Plass kanadar ikerlariak abisua eman zuen *Le dixode de carbone et le climat* ("Karbono dioxidoa eta klima") artikuluan: tendentzia berdinari segi, tenperatura 3,6 graduz emendatuko litzatekeela CO2 isurketen eraginez. 1971n, Massachusetts Institu-

IPCCren datuetan argiki ageri da herritar guztiok ez dugula eragin berdina. Mendebaldeko herri aberatsetakook dugu gehien kutsatzen. Klima larrialdiaren ondorioak pairatzen dabilta, ordea, munduaren hegoko hainbat herritan. Krisi klimatikoaz hitz egin beharrean, "justizia klimatikoaz" hitz egin beharra azpimarratzen dute hegoko aktibistek.

**Berotegi efektuko gasen isurketak, pertsonaka (2019)**





### ERREGAI FOSILEKIN BUKATU BEHARRA.

Erregai fosilak ditu jomugan IPCCren txostenak: 2019ko datuekin konparatuta, 2050erako %95 murriztu beharko dugu ikatz kontsumoa, %60 petrolioarena eta %45 gasarena.

te of Technology institutuko 30 adituk zuten alarma piztu: "Sinetsita gaude gizakiak kliman eragina izan dezakeela, eta fenomeno ulerturik, espero dugu aldaketarako neurriak ondorioztatzea, indar suntsitzaile batzuk mugimenduan jarri baino lehen -gainditu ezin genituzkeen indar suntsitzaileak lirakeke-".

Orduz geroztik, hedatuz eta areagotuz joan da hastapen batean zientzialari bakar batzuek zabalduko abisua. 1979an egin zuten klimari buruzko lehen gailurra, orduz

**Nazioarteko zein  
lekuan lekuko  
erabakitzaileei  
presioa areagotzeko  
asmoz dira ekintza  
zuzenari lotu**

geroztik ohikoak ditugunak. Urte horretan zuen ere Jule Charney meteorologoak AEBetako Zientzien Akademiarentzat CO2 isurketei buruzko txostena idatzi. Abisua luzatu zien: "Atentismo politika baten eraginez ez genuke berantegi izatera iritsi behar...". 43 urte eta gero, badirudi Charneyren amesgaiztora heltzekotan garela. Horregatik du beste biderik ez ikusten Zientifikoen Matxinada-ren sortzaile Michael Lynch Whitek: "Denbora agortu zaigu eta asaldatzea da egin dezakegun gauza bakarra". ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)



LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria



# Natalia Nikulenkova

IZUA ETA AUSARDIA



## GERRAREN AURKAKO MUGIMENDUA ERABAT KLANDESTINO BIHURTU DA ERRUSIAN



Ohituta gaude mandatarien eta bateko zein besteko albiste agentzien ikuspegia jasotzera, ez hainbeste herritarrena. Moskun gerraren aurka dagoen aktibista sutsuaren testigantza ekarri dugu orriotara. ARGIAko kolaboratzaile batek elkarrizketatu du eta zeregina ez da txantxetakoia izan, gerrari buruzko ikuspegi kritikoak hainbat urtetako espetxe zigorra ekar baitezake egungo Errusian.

 **VASILISA PETROVNA**

### **Hasteko eta behin, zer nolako giro politikoa bizi duzue Errusian, eta jendartean oro har ze jarrera nagusi daude gerraren inguruan?**

Putin babesten dutenak eta gerra justifikatzen dutenak, alde batetik, eta bestetik horren aurka daudenak, erdia eta erdia izango dira, gutxi gorabehera. Horrez gain, garrantzitsua da ulertzea Moskun, adibidez, protesta-mugimendu indartsua existitzen dela, 2011 inguruan hasi zena Bolotnaia plazan, "zinta zurien" mugimenduari [Putinen aurkako protesta-mugimendua]. Moskuko jende gehiena Putinen politiken aurka zegoen, protestak masiboak izan ziren... Erdigune osoa jendez gainezka egoten zen eta, Occupy

izeneko mugimenduari, jendeak kanpin-dendak jartzen zituen plazetan eta bertan gelditzen zen. Herritarrak gauzak alda zitzakeela sentitzen zuen, protesta horietan askotariko jendea egoten zelako.

Baina, pixkanaka, jende asko atxilotzen eta espetxeratzen hasi ziren. Eta, gero, errepresio politikoaren lehen olatua etorri zen, preso politikoak, anarkistak... Kide askori zuzenean eragin zien, manifestazioetara joateagatik hainbat urte bete behar izan dituztelako kartzelan.

Garai hartan 2.000 pertsona inguru ateratzen ziren kalera eta ez zitzaigun asko iruditzen. Orain, aldiz, leku batean 2.000 pertsona biltzea izugarri iruditzen zaigu, gaur egungo egoeran ezinezkoa

baita hainbeste jende plaza batean elkar-tzea; denak atxilotuko lituzkete. Jendea oso sakabanatuta ateratzen da orain, hainbat lekutan agertzen da aldi berean, eta nolabait protesta egiten saiatzen da.

Jende askok uste du hemen gerra zibila izango dela. Lagun batzuk beren baliozko objektuak eramaten ari dira hiritik hurbil dauden beste leku batzuetara, Moskun lapurretak egongo direla uste dutelako. Horixe da egunotan bizitzen ari garen giroa.

### **Errusiako ezkerrean, zentzu zabalean ulertuta, zer jarrera daude gerrarekiko?**

Oposizio guztia herrialdetik alde egiten





Союз  
выздоровливающих



# Natalia Nikulenkova

1987, NIZHNY NOVGOROD



Moskun bizi den artista, aktibista eta dokumentalista da. Bere proiektuetan, hiri-inguruneetan sozialki en-gaiatutako praktikak ikertzen ditu, eta praktika aktibistak eta adierazpen artistikoa elkartzen ditu. Errusiako mugimendu feministan aktiboki parte hartzen du, bai eta azken asteotan garatzen ari den gerraren aurkako mugimenduan ere. Gerraren aurka publikoki hitz egitea Errusian ilegal eta arriskutsu bihurtu den garaiotan, pauso ausarta eman du Nataliak isilunea apurtu eta ARGIA-rekin hitz egiteko.

ari da. Nire lagunetatik oso gutxi gertzen ari dira. Eta horrelaxe adierazten da orain protesta, egoera honetan ezin baita beste inola eragin. Eta migrazio hori hain da masiboa, protesta-mugimendu handi gisa adierazten ari baita, exodoa izaten ari da. Jakina, jendea protesta-mugimendu klandestinoren bat ere antolatzen ari da, adibidez, fanzineak inprimatuz.

## Gerraren aurkako mobilizazioei dagokienez, nola antolatu da mugimendu hori eta zenbateko indarra du?

Gerraren aurkako mugimendua erabat klandestino bihurtu da, espetxe-zigorren mehatxua erreala delako. Gerraren lehen egunetan jende guztia atera zen kalera, baina jende asko atxilotu zuten. Eta orain prozesu judizialak martxan jartzen ari dira eta ikerketa penalak egiten ari dira, beraz, kontua serio jartzen ari da.

Nire kideekin batera, Gerraren Aurkako Koalizio Globala sortu dugu eta mundu osoko hainbat agente kultural, lagun, artista, idazle eta abar biltzen dira bertan. Dirua biltzen eta lagunak bilatzen hastea izan zen egin genuen lehenengo gauza. Hasieran, errusiar askok laguntzen ziguten eta Ukrainatik atera nahi zuten lagunei dirua bidaltzen hasi ginen. Baina gero argi geratu zen askok herrialdean geratu behar izan zutela, debekatuta baitago gizonak Ukrainatik ateratzea. Fanzineak inprimatzen ere hasi ginen, eta beste modu batzuetan eusten jarraitzen dugu.

Konturatzen gara alferrikakoa dela kalera ateratzea, adibidez, gure etxeen inguruan polizia-autoak egoten direlako. Orain ateratzen bazara berehala eramango zaituzte, edozer egin duzula ere. Orduan, gauzak beste era batera nola egin daitezkeen pentsatzen hasi ginen. Jakina, oso izututa gaude denok.

## Gobernua lege berria ezarri berri du, besteak beste hamabost urte arteko espetxe zigorrak ahalbidetzen dituena "albiste faltsuak" zabaltzeagatik. Zein da adierazpen eta prentsa askatasunaren egoera?

Oposizioa komunikabide guztiak blokeatu egin dituzte, eta uste dut horietariko asko ikerketa kriminalaren pean daudela orain. Baina ezer gutxi dakigu horren inguruan, oso informazio gutxi daukagu. Nolanahi ere, lege horrek

beldur handia ematen du eta, batez ere propaganda-mekanismo gisa balio die, jende arruntaren pentsamenduan eragin zuzena duelako eta publikoki hitz egiteko beldurra sortzen duelako.

Duela gutxi beste lege bat ere jarri dute indarrean, "aberriari traizio egitea" zigortzen duena. "Goi-mailako traizioa" aspalditik agertzen zen legerian, baina oraintxe hasi dira argitzen horrek zehazki zer esan nahi duen. Goi-mailako traizioa da Ukrainari edonolako babesa ematea.

Zenbait ikerketa soziologikotan irakurri dudanez, soziologoek ez dute datu nahikorik jakiteko jendartearen zein portzentaiak babesten duen gerra eta Putinen politika, eta zenbatek ez. Inkestak egiteko deitzen dutenean, jendeak zera erantzuten du: "Badakizu hamabost urteko espetxe-zigorra ematen dutela honengatik, ez dut zurekin hitz egingo", eta eskegi egiten du. Facebook edo Instagramen argitaratze hutsagatik ere kondena serioa paira daiteke, sareok orain erakunde estremistatza hartzen baitira. Nik hori guztia egiten jarraitzen dut eta lagunek burua galdu dudala esaten didate. Baina nazkatuta nago beldur izateaz, besterik gabe, ezin naiz gehiago bizi etengabeko beldurrean.

## Emakumeak aitzindari izan dira hainbatetan gerraren aurkako mugimenduetan. Nola antolatzen ari da gaur egun Errusiako mugimendu feminista gerraren aurka?

Errusiako mugimendu feminista da indartsuenetako bat une honetan. Atzo eta gaur [martxoak 19] Krimea bereganatu zuteneko urtemuga ospatzen ari dira errusiarrek, eta jende asko ikusi dut bandera errusiarrekin kalean, baina mugimendu feministak beste deialdi bat egin du kalera beltzez jantzita ateratzeko gure lagun eta kideekin batera. Beltza doluaren kolorea da, eta arrosa zuriak ere eramango ditugu, Alemanian hasi zen mugimendu antifaxistaren adierazgarri. Arrosa zurien mugimendu hori Sophie Scholl ekintzaile alemanak hasi zuen.

Lehen, martxoaren 8a ospatzen zenean, Errusiako neska eta emakumeak loreekin ateratzen ziren eta Bigarren Mundu Gerran eroritako soldaduen monumentuetan jartzen zituzten, faxismoaren aurka borrokatu ziren horiek omentzeko. Baina, orain, guretzat faxistak armada errusiarrekoak dira.

Nire aitona ere lagundu zuen mundua faxistengandik askatzen, eta benetan... Batzuetan pentsatzen dut ona dela orain arte bizi ez izana, berak ez baitzuen Errusia honen alde borrokatu.

**Ukrainan bizi izan zara. Zure poema batean zenioen hamar urte beharko zirela Donbas minetatik garbitzeko eta inork ez zuela gerrarik nahi... Aurreikusten al zenuen gertatzen ari dena?**

Ukrainan egon nintzen lehen aldian, mota guztietako bereizkeriei buruzko ikerketak egiten lan egin nuen egoitza batean eta, ondoren, kazetari aritu nintzen *Politiczna Krytyka* deituriko hedabide batean.

Poema hori idatzi genuen Odessa-ko ospitale militar batean ibili ginelako ikerketa egiten eta Donbasen egondako soldaduekin hitz egiten. Jakina, inork ez zuen aurreikusi oraingo egoera, eta zortzi urtez nolabaiteko lasaitasunean bizi izan ginen, ezer gertatuko ez balitz bezala zirudien, gerra dagoeneko martxan zegoen arren. Niretzat sorpresa handia izan zen 2017an eta 2018an Ukrainara iritsi nintzenez. Erresistentziak zortzi urte hauek iraun ditu Donbasen, baina inork ez zuen espero honelakorik gertatuko zenik.

**Mendebaldeko ezkerrean uste zabaldua da Ukrainako armadan zein erakundeetan eskuin muturraren eta faxisten presentzia handia dela. Horrela dela esango zenuke?**

Badira antolakunde ultraeskuindarrak, baina ez dut uste asko direnik. Eta batzuk boterean daude, bai. Baina ekintzaile asko ere badaude, ezkerreko mugimendu indartsua dago, horri guztiari aurre egiten ari dena. Hori aurkitu nuenean asko harritu ninduen eta bertan betirako gelditzea ere planteatu nuen, benetako ekintzaileak aurkitu bainituen, benetako jendea, bere etorkizunaren alde borrokan ari zena.

Eta soldaduen artean, tira, baliteke nazionalistak egotea, baina nik ez nuen horrelako inor ezagutu. Ezagutu nituen soldaduek esan zidaten, Errusiarekin gerran egon arren, haien artean errusiarrek anaiak izaten jarraitzen zutela, eta politika herriarengandik bereizitako zerbait dela; ezin zuten sinetsi errusiarrekin gatazka-egoera bizi zutenik.

**“Oposizio guztia herrialdetik alde egiten ari da. Nire lagunetatik oso gutxi geratzen ari dira. Horrelaxe adierazten da orain protesta, egoera honetan ezin baita beste inola eragin”**



**Ukrainarrek eta errusiarrek harreman handia izan dute historikoki (Errusian bizi diren ukrainarrak eta alderantziz, familia “nahastuak”...). Nola eragiten ari da gerra erlazio horietan?**

Ez dakit nola biziko duten egoera hau telebista ikusten duten familietan, jende asko sinetsita baitago Ukrainan faxistak direla nagusi eta herrialdea haiengandik askatu beharra dagoela. Ziur aski, nolabait, loturak moztu egin dira apurka. Adibidez, nirekin hitz egin zuten soldaduek esan zidaten Errusiako senideek Ukrainara ezkontzaren batera ez joatea erabaki zutela, beldur baitziren [Stepán] Banderaren jarraitzaileek [faxista ukrainarrek] burua moztuko zutelara Ukrainara joanez gero. Eta soldadu horiek zera esaten zidaten: “Beno, baina zein Bandera?”.

Nire inguruan, ordea, guztiz kontrakoa gertatu da. Elkarrekiko babesa are indartsuagoa bihurtu da. Oso elkartuta gaude gure artean, etengabe egoten naiz harremanetan Ukrainako lagunekin, egunero deitu edo idazten diogu elkarri. Nik neuk 50 bat lagun ditut inguruan. Inoiz ez dut jaso nire lagun ukrainarregandik jasotzen dudana bezain hitz polit eta samurrik; asko laguntzen didate eta indar handia ematen didate lanean jarraitzeko. Haiengatik ez balitz, seguru asko erabat etsita eta lur-jota egongo nintzatekeen.

**Nola ari dira bizitzen zure lagun ukraniarrek egoera hau guztia?**

Nire mutil-lagun ohia han dago orain, Lviven, eta edozein unetan errekruta dezakete. Kazetaria da eta egoerari buruz idazten du. Nire lagun emakume guztiak Europara joan dira dagoeneko. Seme-alabak dituztenek berekin eraman dituzte, eta gizonak bertan geratu behar izan dira. Orain dela gutxi lagunei deitu nien batean, denak zeuden bonben aurkako babesleku batean gordeta. Antza denez, alarmak jo



zuen eta tokiren batera jaitsi behar izan zuten. Lazgarria izan zen.

Boluntario gisa eskaintzen ari dira beren burua, autoa dutenek, adibidez, errefuxiatuak eramaten dituzte. Beste batzuek jendearentzako janaria prestatzen dute, Food Not Bombs mugimendurekin. Beste batzuek ospitalean laguntzen dute... Baina beste guztiek bonben aurkako babesleketan jarraitzen dute, nahiz eta badakiten hori laster amaituko dela eta haiek ere errekrutatuko dituztela. Egunero egiten dut negar, asteak eman ditut goizetan esnatu eta negar egiten.

Egun batean, hain nazkatuta nengoan, ezen Poliziarekin hitz egitera atera bainintzen kalera. Kamera hartu eta galderak egiten hasi nintzaian, noren atzetik zebiltzan, zergatik ziren hainbeste... Eta ni konbentzitu nahian hasi ziren: "Neska, ez kezkatu, Poliziak ez dizu ezer txarrik egingo, ordena mantendu besterik ez dugu egiten". Morroi horrek barre eginarazi zidan. Baina benetan uste du hori, ideal erromantikoak ditu buruan eta benetan pentsatzen du Poliziak baduela asmo onik orain.

**Film bat egiten ari zinen Ukrainari lotuta, orain Moskun zaudela amaitu nahi duzu, eta egungo egoera**



**mitxelena**  
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21  
HERNANI

info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com



**jasotzeko asmoa duzu.**

Lehen azaldu dudanez, ospitale militar batean egon nintzen Odessan. Hortxe hasten da filma, soldadu errekrutatuta baten narrazioarekin. Hark azaltzen du 2014an ez zuela sinesten Errusiarekin gerran zeudenik zera gertatu zitzaion arte, Donetsk-era eraman zutela, armak eman zizkiotela eta tiro egiteko esan ziotela. Ezin zuen inola ere sinetsi errusiarrei tiro egin behar zienik. Eta hark gauza horiek kontatu ahala, inguruko guztiak negarrez agertzen dira. Kontatzen duenez, berak lehen taberna batean lan egiten zuen Kazantipen, Krimean; bertan *rave*-ak egiten ziren, askotariko jaiak. Eta orain, gerrarekin, erabateko infernua omen da. Baina oraindik ere Errusiako jendeaz ondo hitz egiten du, gerra gorabehera.

Filma egiten jarraitzen dut. Bigarren zatia amaitzen ari naiz, eta horretarako inguruan gertatzen dena dokumentatzen ari naiz, besterik gabe. Koalizio Globalaren ekintzak filmatzen ditut, Poliziak hartutako kaleak filmatzen ditut, eta protesta-mugimenduetan kaltetutako lagun batzuk ere filmatzen ditut.

Ukrainako lagunei ere eskatzen ari naztaie bertan bizi dutena bideoan jasotzeko, eguneroko moduko bat egiteko han ikusten dutenarekin, bonben aurkako babesleku horietan denbora nola pasatzen duten, boluntario-lana nola egiten duten, eta abar. Eta horrekin guztiarekin eguneroko moduko bat argitaratuko dut bideoan, hau da, egunero Errusian eta Ukrainan gertatzen ari denarekin, egoera nola bizitzen ari garen erakusteko.

**Europar Batasunak lehenetsitako politikak Ukraina armez laguntzea,**

**Errusiari zigor ekonomikoak ezartzea eta epe laburrean gastu militarra asko handitzea izan dira. Zer iritzi duzu?**

Honelako egoeretan, zoritxarrez, beti izaten da jende arrunta gehien sufritzen duena. Dirudienez, Errusiako politikan eragiteko, EBk ez du beste tresnarik zigorrak ezartzea baino, baina horrek guztiak, batez ere, jende arruntari eragiten dio. Eta badirudi Putini bost axola zaiola ekonomiarekin edo jendearekin gertatzen dena. Bere helburu propioei jarraitzen diela ematen du, sentsazioa da zigor horiek ez zaizkiola batere inporta.

Inola ere ez dakit zer egin behar den egoera honetan, baina honengatik guztiagatik pobrezia eta delinkuentzia asko handituko dira. Mundu guztia da horren beldur, hau infernu bilakatuko delakoan. Jende asko ari da lana galtzen, prezioak hazten ari dira, eta ez dago argi nola biziraungo dugun; jendea gerra zibila has-tearen beldur ere bada. Hau guztia kaka hutsa da.

**Zer uste duzu egin beharko genukeela Europar Batasuneko herritarrok egoera honetan?**

Ez dakit... Baina EBko lagunak babesa ere sentitzen dut. Mundu guztia elkartzen ari da, nolabait; elkartasuna hazten ari da. Orain garrantzitsua da Errusian benetan arriskuan dauden pertsonak salbatzea. Polizia atzetik dutenak orain erreskatatu behar dira, bisak lortu behar zaizkie, diruz lagundu eta etxean hartu, etxebizitzak alokatu, eta abar. Izan ere, gu kultura jakin baten eramaileak gara, eta hori galtzen badugu, Europak laguntzen ez badigu, horren guztiaren akabera izango da. ●



## Industria militarrek 1, herritarrok 0

**E**rrusiak Ukraina inbaditu duela eta etengabe ari zaizkigu esaten inbaditzaileak eskarmentua jasoko dutela, eta hurrengo baterako bi bider pentsatuko dutela horrelako neurri zapaltzaileak hartu aurretik. AEBek sustatuta Errusia zigortu dute enbargo neurri gogorrek aplikatuz, men-debaldarrok ziur gaudelako Errusiako ekonomiak ezin izango duela egoera hau gainditzetik.

Egia aitortze aldera, enbargo politikak eragina izan dute Afrika edo Asiako herrialdeei aplikatu zaizkienean, hala nola Hego Afrika, Zimbabwe, Irak edo Irani; baina herrialde horietako txiroenek pairatu dituzte bizi baliabideen ende-kapenen ondorioak. Oroitu behar dugu Nazio Batuek Iraki ipinitako enbargoen ondorioz 500 mila haur zendu zirela, pertsona zaurgarrienak horietatik baitira. Halere, berriki zendu den Madeleine Albright Bill Clintonen kanpo aferetako idazkariari galdetu zitzaionean nola baloratzen zituen Iraki ipinitako enbargo neurri hilgarriak, ihardetsi zuen egoera latza jasan zutela irakiarrek, baina han egindakoak merezi izan zuela.

Herrialde txiroak zigortu nahi direnean, NBEko Segurtasun Kontseiluak ez du arazorik izaten enbargo neurriak onesteko. Alabaina kontseilu horretako kideetako bat edo beren hurbilekoa denean, kontseiluan beto eskubidea erabiltzen dute eta NBEren legeditik at garratzen dira neurriak. Orduan, estatuek

Gerrari eusteko egunean 600 bat milioi dolar igortzen zaizkio Ukrainari, eta beste eskuarekin Errusiari 800 milioi dolar ematen dizkiogu gas, petrolio eta beste hainbat inportazioren truk

banaka aplikatu ditzakete neurri horiek, orain gertatu den bezala. Beraz, AEBei, itsu-itsu, Europako Batasunak jarraitu die, nahiz bumeran efektua jasan, izugarriko menpekotasuna baitugu Errusiatik ekartzen ditugun hainbat oinarriko produktuekiko (petrolio, gasa, garia,..). Gerra honen galtzaile nagusiak ukrainarrak dira, hilotzak beraiek ipintzen ari direlako, baina ondorio larriak pairatu behar ditugu europarrok ere, jadanik lau milioi pertsona guregana etorri direlako, horien senar eta semeak kontatzeko. Izan ere, haiek guztiek, oraingo, etxebizitzak, eskolak, osasun zerbitzuak eta abar behar dituzte eta gure gain burutuko dira gastu publiko horiek.



**BALEREN BAKAIKOA  
AZURMENDI  
EKONOMIALARIA**

Anartean, gerrari eusteko egunean 600 bat milioi dolar igortzen zaizkio Ukrainari, eta beste eskuarekin Errusiari 800 milioi dolar ematen dizkiogu gas, petrolio eta beste hainbat inportazioren truk. Beraz, negozio polita burutzen ari gara europarrok!


Bestalde, begi bistakoa da NATO ere gerra hau sustatzen eta xaxatzen aritu dela aspaldidanik, betiere AEBen maltzurkeriei jarraituta, azken finean Men-debaldeko estatuak berrarmatzea baitu xede NATOk; Trumpek EBko kideei eskatu zien gastu militarretan eskuzabalago izateko, BPGren %2ra hurbiltze aldera.

Trumpen ideia orain azaldu da, Ukrainako gerran murgilduta gaudenean. EBko kide oro prest dago gastu militarretan jauzia emateko BPGren %2ra heldu arte. Alemaniak 100 mila milioi euro erabiliko ditu berrarmatzen!

Horrek adierazten digu negozio oparoa aurreikusten duela industria militarrek, izan AEB zein EBkoa. Beste aldean, Txinak ere ez du galduko; Errusiak EBean salduko ez dituen petrolio, gasa eta abar oso ongi etorriko zaizkio defizit nabarmenak dituzten sektoreak orekatzeko. Eta galtzaileak herritar xumeak izango gara, diru publiko gutxiago geratuko zaigulako zerbitzu publikoetan inbertitzeko, zergak igotzea "debekatu-ta" dagoela ematen baitu, eta ez dirudi posible zergei ihes eginaz gordetzen dituzten paradisu fiskalak enbargatuko dituztenik. ●



# Kontaketa eta hiztegi berri beharraz



**KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE**  
LITERATUR ZALEA

PAULA ESTÉVEZ

**A**piril honetako *Le Monde Diplomatique* hilabetekarian artikulua interesgarria idatzi du Pierre Rimbartek: *Événement total, crash éditorial* (“Gertakari oso, erortze editoriala”). Berriketariak dio Mendebaldeko espazio mediatico nagusian ohar-garria dela nola gertaera batzuek bat-batean toki guzira hartzen duten, botere politikoak moldatu ikuspegi bakarretik. “Gertaera oso” horiek beste guzietan gaina hartzen diete. Gainera, azaletik eta beroan bero baizik ez dituzte jorrotzen kazetari gehienek. Hedabide horietan, propaganda ofizialetik kanpoko iritziei toki murrizta uzten diete, bereziki arnas luzeko ikerketa sakonen ondorioak direlarik.

Mementoko adibidea dugu Ukrainiako gerlarena, dio Rimbartek: badirudi hedabide handiek eginbehartzat daukatela, ez informatzea, ez argitzea, ez hausnarraraztea, baizik eta mobilizaztea, ukrainiarren alde eta errusiarren kontra. Irudi eta berri negargarriak etengabe zabaltzen dituzte kanal publiko eta pribatuak, berehalako sentsazioak eragiteko xedez, edozein albiste, artikulua, zutabe, kronika, atal edo sailetan. Libertatea eta Estatu burujabetza bezalako balore sakralizatuen izenean,

galdegina zaigu haiekin jauzkorki bat egitea, baina gogoetatzen eta ulertzen saiatzea, ez.

Ezinegon izugarri horretan parte hartzen du jendarte guziak, manera absurdoz batzuetan, Rimbarten arabera: Milaneko Bicocca unibertsitateak Fiodor Dostoievskiri buruzko kurso bat ezeztatu du “polemika saihesteko” eta Gatuen Nazioarteko Federazioak erabaki du gatu errusiarrek baztertuko dituela bere txapelketetatik.

Rimbartekin ados nago. Zentzugabekieretara joan daitekeen irakite horren partez, erreportaje mamitsuak irakurri nahiko nituzke Zelensky ukrainiar lehendakari gazteaz, haren politika, ideologia eta estrategiaren argi eta itzalez. Nahiko nuke berdin hedabide guzietan gehiago eta seriooki galdekatuak izan daitezen bakea eta gerla kontzeptuak Europaren baitan: bake estrukturala omen da Europar Batasunaren zimendua, hori da hedabide gehienek zabaltzen duten “egia”, baina Europa osoak erroak ez ote dauzka lehengo inperialismoen arteko gatazketan, Estatu-nazio handinahi berriagoen arteko tirabiretan, gerla hortzean, prekariotasun eragile den neoliberalismoan? Beste kontaketa entzun

nahiko nituzke Ukrainiari buruz, beste kontaketa Europari buruz.

Beste eleak ere nahiko nituzke sosegu bila dabiltzan iheslariez: ezin jasana zait hedabide nagusiek aipa ditzaten ukrainiarrek modu urrikalgarrian, besteak aldiz modu bihozgabe, bortitz eta gutxiesgarrian. Buruzagi politikoen ahoetan, lehenak “errefuxiatuak” omen dira, beste hauek “migratzaileak”; bidezkoa da ukrainiarrek janzte, artatzea, gure etxeetan aterpetzea; ez da onargarria haatik besteak garraiatzea edo babestea: agintarien hitzek berek erakusten dute ukrainiarrek eta besteak ez direla kontaketa beraren protagonistak. Ukrainiarrek, delako “gertaera osoaren” zentroan dira; badirudi beste etorkinak halabeharrek ustekabean bultzaturik direla hona etorri, kontaketa anekdotiko baten aktore txarrak bailiran.

Historiaren kontakizunaz eta hiztegiaren bestela jabetzeko beharra sentitzen dut. Anartean, ez dut solas ofizial bihurria eta arrazista ekintzetan sostengatu nahi, baina berdin lagundu beharretan dagoen bakoitza. Siriarrak, afganistandar, irlandarrak, ukrainiar ala aberriar, edozein presunak errespetu bera merezi baitu. ●



LAURA PENAGOS  
ANTZETZLEA

## Maitasun gutuna

**E**rrokariera, desagertuta. Saraitzue-  
ra, desagertuta. Nafarrera, oraindik  
ez. Bizkaiera, oraindik ez. Gipuzkera,  
oraindik ez. Lapurtera, oraindik ez; ezta  
batua ere.

– Batua! Baina hau euskara da, ala? Dut,  
det, dot, düt.

– Euskaraz bizi nahi dut. Hika, zuka, be-  
rorika.

Euskaraz bizi nahi dugu? Baiona, Tuter,  
Maule, Bilbo. Zer da normalizazioa? Hitz  
egiten dugun pertsonok euskara normali-  
zatzten dugu?

– Ez da batere erraza ikastea.

– Euskara oso zaila da.

Posible da euskalduntzea? Gara, gera,  
gare, gira. Zer da euskara? Euskara da...

Zenbat atal? Zenbat erlaitz? Zenbat kate-  
goria? Zenbat geruza? Euskararen geruzak.  
Zenbat urte? Zenbat mende? Zenbat zigor?  
Zenbat aurreiritzi? Zenbat beldur? Zenbat  
hitz geratu ziren sutan sukaldearen beroan  
esan gabe? Non hitz egin dezaket?

– Hemen, bai.

– Hemen, ez.

– Hemen, 'kaixo, zer moduz' soilik. Eus-  
kara da... Zuri, gorri, beltz. Zer esanahi du  
Euskal Herrian euskarak? Zer esanahi ema-  
ten diogu? Zer da niretzat? Zer da bizila-  
gunentzat? Zer da lagunentzat? Euskarak  
etsaiak ditu? Zergatik ez da doan? Nor izan-  
go dira bere etsaiak?

– Titulua bai.

– Titulurik ez.

Euskara pribilegioa da? Noiz izango

da doan? Zazpi urte ikasten, zazpi! Zazpi  
erronka, zazpi ahalegin, zazpi etsipen, zazpi  
herrialde. Nahi duzue guk "kanpotarrek"  
euskaraz hitz egitea? Nor zarete zuek? Nor  
gara gu? Zer da nortasun bat?

– Ni naiz, zu zara, bera da.

Zertarako balio du? Euskara menperatu-  
ta dago? Nork menperatzen du? Nahi dute  
euskara desagertzea? Zein da bere gaurko  
egoera? Zer egiten ari gara? Zerbait egin  
behar dugu?

– Euskaldun berri.

– Euskaldun zahar.

Gorri min, gorri bizi, gorri samin, han-  
kagorri, goiz gorri, gori-gori. Gorrotatu.  
Maitatu. Euskara-gaztelania, amore eman;  
denda batean amore eman, osasun etxean  
amore eman, funtzionario batzuekin amore  
eman, kafetegi batean amore eman, bizila-  
gun batzuekin amore eman, lagun batzue-  
kin amore eman, epaitegietan amore eman,  
bilera batean amore eman, kalean amore  
eman, etxean amore eman, neure buruare-  
kin amore eman, amore eman, amore eman,  
amore eman, amore eman, amore eman.

Sortzen, Herri urrats, Nafarroa oinez,  
ti-pi-ta-pa, ko-rri-ka, po-li-ki, po-li-ki, as-ti-  
ro, as-ti-ro, gel-di. Ezker, eskuin, erdi, hego  
ipar, mendebalde, ekialde. Non dira da-  
goeneko ahoskatzen ez diren hitzak? Non?  
Agian, mendi artean dabilta airean, belar,  
adar, hosto, isiltasun eta oroitzapen bihur-  
turik. Sahats, haltz, haritz, hagin, ametz, hu-  
rritz, ize, ezki, lizar, zumar, gurbitz, gaztai-  
nondo, arte. ●



EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE

## 'Drag king'

**D**rag king-aren bitartez baimendu diot  
neure buruari feminitateari hurbil-  
tzea, zerikusirik ez duenak umetan  
ezagutu nuen feminitate derrigorrezko ho-  
rrekin. Ingurukoan desesperaziorako eta  
nire auto onarpenaren bila, femenino ka-  
tegorian sartzen diren gauza guztiak ukatu  
nituen eroso zitzaidan maskulinitateari  
nerabezaro beranduko ateak zabaltzeko.

Drag king-ari esker sendatu dut femini-  
tatearekin nuen zauri hori, esploratu ga-  
bea dudan maskulinitateatik feminitatea  
nahi dudan neurrian gorpuzteko. Zeren  
eta, maskulino eta femenino kontzeptu zu-  
rrunak norma heterosexualaren logikan

baino ezin daitezke ulertu, eta biak izan  
daitezke neurri berean mugatzaile, tokatu  
zein aukeratu; batetik ihesi bestea inkon-  
dizionalki besarkatzea itogarri bilakatu  
daitezke luzera.

Zioen Leslie Feinberg-ek *Borrokalari  
transgeneroak* liburuan drag-a ukatu egin  
zaigun genero espresioa berreskuratze-  
ko ekintza zuzena dela, tamalgarriki espazio  
gutxitan egin daitekeena. Bollera izateari  
esker ezagutu dut zer den maskulinitate  
zigortu bat, eta drag king-ari esker zer den  
feminitate disidente bat. Bien konbinazio  
honetan sentitzen naiz gustura, bakarra  
aukeratu beharrik gabe. ●



# Aurrea hartu, aurrera egiteko



**MAIALEN ARTEAGA**  
KAZETARIA

Zerbaiti aurrez aurre begiratzea asmoak adierazteko modu argia da. Zerbaiti, norbaiti, aurrez aurre begiratzea, parekoaren existentzia aitortu, kontzientzia hartu eta erantzutea da; eta hala egin dugu gazte euskaltzaleok. Badira pare bat urte euskararekiko genituen kezkei begietara begiratu eta arduratik antolatzen hasi ginela. Arduratik, erantzukizunetik, belaunaldi perspektibatik, eta ilusiotik ere bai.

Kezkatuta gaude. Kezkatuta euskararen jakintza maila igo den arren, oraindik ere euskaraz bizitzeko baldintzarik ez dugulako. Kezkatuta adinak gora egin ahala, erabilerak behera egiten duelako. Arduratuta, espaziorik euskaldunentan ere (gazte mugimenduetan kasu), izaten ari den bilakaeragatik eta hartzen ari garen bizio kutsagarriengatik. Larrituta, kezkek antolatzen ibili garen bitarte guzti horretan euskarak (eta beraz, euskaldunok) jaso ditugun eraso guztiengatik, eta horren aurrean kaleak bete ez ditugula ikusita. Kezkatuta belaunaldi gisa, euskaraz ez hitz egitearen etiketa eta hizkuntzarekiko arduraga-

Panorama aldatu ezean, euskararen bizitzaz mintzo beharrea, biziraupenaz mintzatzen jarraituko dugu

be zama gainera kendu ezin dugulako. Gutxi erreparatzen diote, ordea, gure belaunaldiak bizi duen globalizazio eta homogeneizazio prozesu basatiari; sare sozialek, pantailek, kultur erreferenteek eta hezkuntza ereduak gure hizkuntza ohituretan duen eraginari, eta digitalizazioaren lehia basati eta gordin horretan euskarak duen presentzia urriari. Baina,

bada garaia euskararen etorkizunaren ardura norberaren bizkarrean jartzeaz gain baldintza materialez laguntzeko; baldintza horiek gabe eta haizearen kontra euskararen alde urratsak eman dituzten guztiei urratsaren garrantzia aitortzeko; egunero euskaraz bizitzeko hautu politikoa egin duten guztiei euskararen militante izaera aitortzeko.

Egoerari aurrez aurre begiratu behar diogu denok. Ez da samurra. Parean dugun panorama aldatu ezean, euskararen bizitzaz mintzo beharrea, biziraupenaz mintzatzen jarraituko dugu, eta argi daukat, batzuek etengabeko biziraupen terminoetan nahiago gaituzte. Arnasa hartu behar dugu, orain. Nahi dugulako eta eskubidea dugulako. Egoerari aurrez aurre begiratzetik, aurrea hartu, eta aurrera egiteko garaia da. Korrikak eman digun bultzada jaso, ilusioak pilatu eta maiatzaren 21ean Donostiako kaleak bete behar ditugu euskararen alde gauden denok; euskaraz, gazteleraz zein frantsesez mintzo, Euskal Herriko etorkizuna euskaraz irudikatzen dugun denok. Euskara aurrera! ●




# XAPOKETAN

## PUZZLEA

*Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak ezagutzeko 100 piezako puzzlea*

**Iñaki Sanz eta Eñaut Aiartzaguena**



Gure artean zein ugaztun, hegazti, arrain, anfibio, narrasti eta ornogabe bizi diren eta zehazki non aurkitu ditzakegun ikasiko dugu. Gainera, Euskal Herriko zazpi ekosistemak biltzen dituen liburuxka gehitu dugu.

**PUZZLEAREN NEURRIA: 43 x 27 zm**

**15€**



+ 4 € bidalketa gastua.  
40 €tik gorako erosketetan, bidalketa doan.



# 22.korrika

## *Euskaltzaleok behar genuen arnasa, hitzekin*

LEIRE ARTOLA ARIN AEK









**E**z gaitu inork derrigortu elurpean, hotzez edota gauez korrika egitera. Inork derrigortzen ez gaituen bezala euskaraz egitera, euskaraz idaztera. Izatekotan, aurkakoa. Baina aukeratu egiten dugu, Korrikan parte hartzea bezala, euskaraz bizitzen saiatzea. Euskarak behar baititu euskaltzaleak, eta euskarak behar du, besteren artean, AEK, AEK-k Korrika behar duen gisa berean.

22. Korrikak euskaltzaleoi azken boladan falta genuen indarra eman digu, Euskal Herri osoan. Kaleak betetzeko aukera eman digu. Arnastu dugu, azkenean, komunitateak ematen duen hatsa. Bizipoza.

Lekukoan gorderik joan den mezuan Karmele Jaiok azpimarratu du hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena duela Korrikak. Hamaika egunez Korrikan ibili garenok ikusi dugu euskara gorpuztuta, milaka gorpuztetan. Furgonetatik ikusi ditugu hamaika aurpegi, erdaraz edo euskaraz, euskarari bultzaka.

Furgonetaren barruan, ikusi dugu zer nolako lan izugarria egin duten hamaika lagunak, hamalau orduz jarraian, eta beste hamaiak hurrengo hamalau orduetan. Guztira 22 pertsonako taldea, 22 gorpuz eta gogo, beti ekinean, beti elkarlanean. 22 euskaltzale horiek izan dira 22. Korrikaren motorra. 22 lagun horiei eta haien bizkarra zaintzen aritu direnei esker iritsi da lekukoa Amurriotik Donostia-ra, 2.000 kilometrotik gora eginda. Lagun horiek izan dira herriz herri hainbesteko zoriontasuna transmitzearen arduradun zuzenenak.

Komunikazio taldeko beste hamaika pertsonak jarraitu dugu egunerokoa, eta euskarazko hedabideetan kontaktu dugu egunez egun barruan eta kanpoan ikusi duguna. Kontatu dugu milioi bat pertsona inguru mugitu dituela Korrikak, kontaktu dugu nolako harrera egin zaion herri ekimen honi, kontaktu dugu nola hunkitu den jendea. Eta badakigu, gu hunkitzen ginen bezala hunkitu direla ibilbidea telesail bat balitz bezala egunez egun etxetik jarraitu duten lagun asko. Behin Korrika amaitutakoan telebistan zer jarri ez zekiela geratu

dela asko. Diotenez, inoizko Korrikarik segituena izan da aurtengoa.

Hala ere, furgonetan joan garenok ez dugu dena kontatu. Ez dugu aipatu zenbat erdara entzun dugun herririk euskaldunenetan ere; ez dugu erakutsi zer euskara gutxi entzun dugun herririk erdaldunenetan; ez dugu kontatu batzuei Korrikak zenbateko deserosotasuna eragin dien, euskararekiko duten gorrotoa; ez dugu dena jarri mahaiaren gainean, zaila baita zenbait gauza hitzekin azaltzea.

Hala ere, Korrika hori baino gehiago da. Herri baten aurpegiarik onena, ziurrenik. Auzoz auzo, herriz herri, Euskal Herria euskalduntzeko lanean ari direnentzat aukera ezin hobea, festa giroan, inguruetan eragiteko. Lasterketa herrietara iritsi aurretik bai pasatakoan ere Korrikak irauten du, izan Korrika Txikien eta Korrika kulturalen bidez, bolondres eta militantziaz, hamaika ekimen antolatzen ditu jendeak. Euskaldunak ahalduzko hondar aleak.

*Hitzekin zen aurtengo leloa.* Hitzetatik ekintzetara egitera jauzi egiteko deia. ARGIAren webgunean hala egin duten zenbait pertsonaren bizipenak ezagutzeko aukera izan dugu. Euskara ez baita zaila, nahia baizik, Jaiok gogoratu duenez. Herritarrak mugiarazi ditu AEK-k, eta barruak mugiarazi ditu Korrikak berriro ere. “Bateriak kargatzeko balio dezala”, nabarmendu digu euskaltzale batek Maulen jende gazte mordoa korrika ikusi ostean. “Baina bateria horiek deskargatu daitezela datozen bi urtetan, erabili egin behar ditugulako”, gaineratu du.

Ez dakigu Euskal Herriak oroituko duen 22. Korrika pandemia baten osteko berpizte gisa, bultzada erraldoi eta indartsu gisa. Baina hala izan da. 22. Korrikako pertsonak, aurpegiak, sentipenak eta kantuak iraun dezatela luzaroan, herri ekimena apal izan den aro baten amaiera gisa. Eta ez ahaztu, beti dagoela norbait Hitz Ekiteko prest...

\* Leire Artola ARGIAren berriemate berezia izan da Korrikaren prentsa taldean. ●



BASAURI BIZKAIA HEGO URIBE







IZORIA, AIARA.



MUNARRIZTIK GENBERA BIDEAN, NAFARROA LIZARRALDEA.





DONIBANE GARAZI



BAIGORRITIK ERRATZURA BIDEAN

ANOTZETIK AZANZARAKO BIDEAN.





ARABAKO LAUTADA ETA SAKANA ARTEAN.



GIZABURUAGA



N, BAZTAN.



ARGUEDASTIK VALTIERRARAKO BIDEAN, ERIBERA.





DONAPALEU



LIZARRALDEA





ERANDIO



ARGUEDAS, ERIBERA.



# Hitzetatik ekintzetara

Korrikak iraun bitartean euskararen aldeko borroka gogoangarrirei buruzko erreportaje sorta argitaratu dugu webgunean, Leire Artolaren eskutik. Jarraian erreferentziak eta loturak.



## Arte Ederretako ikasleak:

Bost irakasle euskaldun eskatzetik, unibertsitatea hankaz gora jartzera

Ehunka ikasle mobilizatu ziren euskaraz ikasi nahi zutelako. Hiru hilabeteko greba egin zuten, eta bitarte horretan fakultatea okupatu zuten.



## Lehen bertso eskola:

Euskara herriari eman zioten

Patxi Goikolea euskaltzale eta bertsolariak 1974an sortu zuen lehen bertso eskola Juanito Akixu eta Xanti Iparragirrekin batera.



## Euskalduntxarrak irratsaioa:

Ez euskaldun berriak, ez zaharrak

Gasteizko Marixa Osés eta Mikel Saenz AEK-ko ikasleek euskara ikasgelatik atera behar zutela ikusi eta Hala Bedi irrati mikrofonoen aurrean jarri ziren mingaina askatzeko.



## Seaskaren borroka:

Ez dago isunik, irakasleak kikilduko dituenik

Baxoa eta brebete azterketak osorik euskaraz egin daitezzen nahi dute, eta ekinean jarraituko dute lortu arte.



## Union Tutera:

Gol bikoitza euskaraz

Nafarroako Erriberan kosta egiten da euskara entzutea. Tutera-ko gazteek egoera irauli nahi dute, eta 2021eko udan Unión Tutera eratu zuten: "Herrikoia eta euskalduna den kirol taldea".



## Abokatu euskaldunak:

Desobedientzia, euskara ez dadin arrotza izan epaitegietan

1990eko hamarkadan borroka sutsua egin zuten epaitegietan. Materiala prestatzeaz gain, epaitegietan euskara hutsean jardun zuten abokatu ugari. Garesti ordaindu zuten.

# Mezua

 KARMELE JAIO EIGUREN  DANI BLANCO

Herri honen eztairitik ateratako irrintzi bat. Hori da Korrika.

Oihu honek hogeita bigarrenez erakutsi digu hizkuntza bat ez dela hitzekin egiten bakarrik, hitzekin eta gorputzekin baizik. Belaun eta hanken gainean trostan eraman daitekeela hitza; dardara, arnasestu eta izerdi artean pasatu ahal zaiola elkarri eskutik eskura.

Hizkuntza zerbait fisiko bihurtzeko ahalmena du Korrikak. Gure a e i o u partikularra gorputzeko. Eta hori behar du euskarak: haragi bihurtzen diren hitzak.

Euskarak behar du hezurdura bat, anatomia bat, arnas aparatua eta nerbio sistema bat. Behar du lepo bat zeinen gainean segi aurrera. Malko eta listuz bustitzea behar du euskarak. Hatz markaz zikintzea.

Zikindu dezagun, beraz, euskara; lohitu dezagun bizitzaz. Eta egin deza-

gun euskararekin hainbat inertziaren kontra:

Hitzak hustu egin diren garai batean, bete ditzagun euskararen berbak harri eta herriz.

Dena erosi eta saldu omen daitekeen garaian, erakutsi dezagun zein merkea den gure hizkuntza: debalde hartzen dugu herriaren ahotik eta debalde ematen diogu herriaren belarriari.

Indibidualismoa indartuz doan garaian, egin dezagun euskara kolektibo bat, denon artean eta denona.

Gerren sasoiari, lehenetsi dezagun beti hitza.

*Influencer* eta youtuberren aroan, izan ditzagun guk bestelako jainko txiki inspiratzaileak.

Euskararen pronostikoa gudan dagoela gogorarazi zigun Pello Zabala, adibidez.

Edo euskaraz apaltasun eta harrotasun hitzak bateragarriak direla erakutsi zigun Joan Mari Torrealdai.

Edo euskara ez dela zaila, euskara nahia dela erakutsi ziguten Elbira Zipitria, Julene Azpeitia edo Izaskun Arrue bezalako andereñoak.

Eta etiketen garaian, ahaztu ditzagun behingoz euskaldun berri eta zaharrak. Iraultza honetan, lasterketa honetan, denok garelako euskaldun berri. Hizkuntza bat egunero hasten delako, egunero berritzen delako. Hizkuntza bat ez delako jaiotzen, egin egiten delako.

Sinistu dezagun euskara ez dela daukagun zerbait, garen zerbait baizik.

Eta atera dezagun gure eztairitatik Mauriziaren irrintzi baten indarrak.

EKIN EUSKARARI, EUTSI KATEARI!  
GORA KORRIKA ETA GORA EUSKARA! ●



DONOSTIA





LOIU



MAULE



BILBO



DEREDIATIK ZUHATZU DONEMILIAGARA



AMURRIO



# “Pirinioek etorkizun hobeare merezi dute, Bartzelonaren jolas-parkea izatea baino”

**Pau Lozano**

“Stop Jocs Olímpics” plataformako kidea

Txinan, Neguko Joko Olinpikoak egin diren zonaldean, elurrik egin ez eta artifizialki sortutakoa baliatu dute. Kataluniako Pirinioetan ere elur gutxi egin du, eta eski estazio askok ezin izan dute normaltasunez funtzionatu. Halere, 2030eko Neguko Jokoak begipuntuan, Bartzelona-Pirinioak hautagaitza



ari da prestatzen Kataluniako Gobernuak. Proiektuak kezka eragin du hainbat herritarren artean, eta plataforma bat ere sortu dute: Stop Jocs Olímpics, bestelako eredu bat aldarrikatzen duena Pirinioentzat. Taldeko kidea Pau Lozanorekin bildu gara La Seu d'Urgell-en, mendikatearen magalean.

 LUKAS BARANDIARAN  ANNA SASTRE





### “Stop JJ00” aldarri hartuta ari zarete lanean.

Proiektua gelditzeko unerik garrantzitsuena orain da, Kataluniako Gobernuak uztailaren 24rako iragarri duen galdeketa testuinguruan. Jokoak egin ahal izateko Nazioarteko Olinpiar Batzordearekin kontratu bat sinatu behar da, eta hark botere handia du nahi duena egiteko, beraz gelditu nahi baditugu orain behar du. Gaur arte gure argumentuetan sakondu eta horiek azaltzen aritu gara, eta lurraldeka antolatzeke prozesua hasi dugu orain, Pirinioetako bailarez harago, indarrak metatu eta gainera datorkigun Jokoen aldeko kanpainari aurre egin ahal izateko.

### Proiektuaren bultzatzaile batzuk galdeketa egitearen kontra agertu dira, hautagaitza oztopa dezakeelakoan. Zein da zuen postura?

Proiektua atzera bota behar dela. Dena den, egitekotan, haren inguruan bozkatu ahal izatea ezinbesteko baldintza da. Baita Pirinioetako bizilagunek proiektuari buruzko informazio guztia eskura izatea ere, aurrekontua zenbatekoa izango den adibidez, eta erabaki ahal izatea diru publikoa horretara ala beste zerbaitegara bideratzea nahiago duten.

### Galdeketa baiezkoa nagusituko balitz, zein litzateke zuen jarrera?

Jokoak gelditzeko borrokan jarraitzea. Uste dugu Pirinioek etorkizun hobea merezi dutela, Bartzelonaren jolas-parkea izatea baino. Horren alde borrokatuko dugu, Jokoak egin ala ez. Guretzako momentu hau aukera bat da: historikoki oso bereizita egon diren Pirinioetako bailaretako bizilagunak eta borrokak elkartzea proiektu baten kontra, eta indar hori baliatzea gauzak aldatzeko.

### “Jokoak hemen egiten ez badira, lurraldearen mesedetan baliatuko litzatekeen dirua ez da iritsiko”, diote aldekoek.

Jokoen aldeko argumentu gutxi entzun ditugu, baina oro har gehienek diote Pirinioentzat oinarrikoak diren hainbat inbertsio behar direla, eta Jokoen aitzakiarekin gauzatu egingo dituztela. Gure ustez, Jokoak antolatu ala ez, oinarriko azpiegiturak eraikitzea da gakoa. Xantaia bihurtzen da. Jokoekin tren zerbitzuak bikoiztuko direla diote, baina Jokorik gabe ez? Egun egiten ari diren azpiegiturak egitura erradiala dute [Bartzelona erdigunean kokatuta], baina hemen ga-

rrantzitsua ardatz pirenaiokoa da: badira hamarkadak berritu ez dutela, eta Pirinioak puntaz punta zeharkatzeak ordu mordo hartzen du. Ez dago pentsatua bailaraz bailara igarotzeko, baizik eta Bartzelonatik ahalik eta azkarren igotzeko. Errepidea duela 50 urteko berbera da. Azpiegiturak behar ditugu, baina batez ere Pirinio mailan lotuko gaituztenak.

### Jokoen alde erabilitako argumentuetako bat da inbertsioak dakartzatela...

Gure arazo nagusia da eredu aldaketa behar dugula. Arazoa ez da turistak falta zaizkigula, baizik eta ez daukagula garraio publikorik herrira joateko, herri askok ez daukatela ez eskolarik ez medikurik, espezialistak Lleidan edo Bartzelonan daudela, gazteek ikasteko kanpora joan behar dutela, abeltzaintza, historikoki basoen kudeaketan paper garrantzitsua izan duena, desagertzen ari dela, eta abar. Arazo horiek datoz azken hamarkadetan inbertsioak turismoa bultzatzera bidera-

“Matrize espainiarra duen goi burgesia ari da hautagaitza bultzatzen: Foment de treball, Círculo Ecuestre, turismo lobbyak...”



tu direlako. Ez dakit noiz, baina momenturen batean lurraldeak interes ekonomikoaren arabera banatzen hasi ziren bertako errealitatea kontuan eduki gabe: lurralde batzuk onak izango dira laborantzarako, beste batzuk espekulatzeke, edo energiarentzat. Pirinioetan turismoa egokitu zaigu, eta jan ditu beste sektoreak, hemen bizi eta lan egiteko aukera ematen bazuten ere. Urtarokako fluxuekin udan eta neguan hau bete egiten da, baina ondoren hustu ere bai. Pirinioetako etxebizitzaren %53 bigarren etxebizitzak dira.

### Goi Pirinioetan turismoak ekonomian duen pisua Kataluniako batez bestekoa baino lau aldiz handiagoa da, baina aldi berean, per capita errenta ia erdia da. Jendeak dio Jokoek lana eta garapena ekarriko dituztela...

Pirinioek aberastasun handiak dituzte, naturala, hidraulikoa, energia, nekazaritza, industria dezente geneukan... Baina turismoaren mesedetan suntsitu egin da norbaitek erabaki zuelako hau jolas-parkea izango zela. Orain dauzkagun arazoak eredu horren ondorio dira. Denetatik entzun dugu, baita Jokoek ekonomia dibertsifikatzeko balioko dutela ere. Txistea dirudi, baina hori diote. Joko batzuen eragina, azpiegitura eta inbertsioen gaintik, lurralde baten promozioa da, eta beraz, sektore turistikoa errentagarriago egitea, lilura bat besterik ez bada ere. Lurraldean errotuago dauden zenbait turismo-zerbitzu ere Jokoen kontra daude; izan ere, hau bezalako ekitaldi batentzat hotel plazak areagotu behar dira, eta hori ez du bertako jendeak egingo, baizik eta







inbertsio-funtsek edo enpresa turistikoko handiek, ostean hemen geratuko direnak. Azpiegiturak eraikiko dituzte Jokoek eskaintzen duten malgutasunarekin, eta ondoren pastelaren zatia lortzeko lehian sartuko dira, turista kopurua ez denean handituko.

### **Zertara bideratu beharko lirateke inbertsioak?**

Pirinioetan egindako inbertsioen herena eski estazioetara doa, galera handiak dituzte-eta, nahiz eta, ustez, lurraldean eragin positiboa daukaten. Prest al gaude edozein enpresa estrategikoren galerak gure gain hartzeko eskiaren sektorearekin egiten den antzera? Guk ez daukagu errezeta magikorik. Plataforma saiatzen ari da Pirinioetako biztanleen harrotasuna loratzen, aldarrikatu ahal izateko hemen bestelako bizimodu bat nahi dugula. Lehen eta bigarren sektoreak bultzatzea gakoa da kalitatezko lan egonkorra edukitzeko. Bestetik, zerbitzu publikoei dagokienez, despopulazioa egitate bat da, mendiko herriak husten ari dira. Eskolarik ez badago ez doalako familiarik haurrekin, edo medikuak astean behin joateari ere uzten badio, herria husten joango da apurka, eta jendea asteburuetan soilik etorriko da. Nola irauli joera hori? Nola dibertsifikatu ekonomia hemen dauzkagun beharren arabera?

### **Nor ari da Neguko Joko Olinpikoetarako hautagaitza bultzatzen?**

Goi-burgesia katalana dago atzean. Tira, katalana... Ez du matrize nazionalista

katalana, espainiarra baizik, baina historikoki hemen kokatuta dagoena; besteren artean Foment de treball, Círculo Ecuestre, turismo lobbyak... Horiek dira lapikoa egosten jarri zutenak, Jokoak agendan sartu eta presioa egiten, interes ekonomikoek bultzatuta.

Jokoek diru mugimendu handia eragiten dute, batez ere poltsiko publikoetatik pribatuetera. Ingurumenaren babesak eta plan urbanistikoek sortutako mugak hausten dituen legedi berezia dakarte, eta Jokoen aitzakiarekin ohiko baldintzen arabera eraiki daitekeenaren gainetik eraiki daiteke. Interes espekulatiboak daude: dirua ezartzea ahalik eta irabazi handiena lortzeko. Jarriko diren milioi guztiak norbaitek poltsikoratuko ditu, eta horiek ari dira prestatzen hautagaitza. Eta bestetik, gibelean, interes politikoa daude.

### **Hain justu, zergatik kritikatu dira Joko Olinpikoak proiektu espainolista gisa?**

Jokoak oraintxe bertan independentismoa desaktibatze mekanismoa dira, gatazka nazionala lurperatzeko. Batetik, Jokoak urrezko aukera dira estatuarentzat, kirolaren aitzakiarekin nazionalismo espainiarra bultzatzeko, Pirinioetan tartean, espainolismo gutxi dagoen tokian. Bestetik, Joko batzuk ospatzeak munduaren begietara dakarren zuriketa aipatu behar da. Adibidez, 1992ko Joko Olinpikoek munduari irekitzea zekarten, "estatu moderno gara", "atzean utzi dugu frankismoa" eta abar. Kanpora begira, baturik dagoen nazioaren irudia za-

baldu zuen estatuak. Baina,aldi berean, independentismo katalanaren kontra inoiz egindako operazio handiena egin zuten: 40 atxilotu eta torturatu. Jokoak hasi baino aste batzuk lehenago izan zen, eta Jokoen pantaila erabili zuten operazioa nazioartean ezkutatzeko.

### **Kataluniako Gobernua ERCren esku dago. Zergatik uste duzu ari dela bultzatzen hautagaitza?**


Esango nuke Esquerrak ez duela interesik honetan. Gai askotan noraezean dabil, eta hau horietako bat da. Botere ekonomikoek egiten duten presioaren eta bere proiektu politikoaren artean mugitzen da, eta ez du posizio oso argirik. Hain zuzen ere galdeketak horri erantzuten dio, haien modua da alde edo kontra gehiegi ez engaiatzeko: herriak erabaki dezala. Eta bestetik, gobernuko bere kidearen baitan, Junts per Catalunya, gehiengo Jokoen alde apustu egiten ari da, hein batean historikoki patronalarekin eta talde ekonomikoekin eduki dituen loturengatik.

### **Hainbat ikerketak dio urte batzuetara Pirinioetako eski estazio gehienak bideraezinak izango direla baldintza klimatikoaren ondorioz, baita elur artifizialarekin ere.**

Bada zientziarekiko eta ebidentziarekiko gutxieste edo axolagabetasun puntua. Aurreko batean Stop JJOO plataformak bilerak eduki zituen Parlamentuan talde politikoekin, eta Junts per Catalunya kide batek esan zuen elurra amaituko bada, itzelezko agurra eman beharko geniokeela. Purrustada dirudi, baina El Prateko aireportua zabaltzeko proiektuarekin antzera jokatu dute. Aurreikuspenek diote itsasoaren maila igotzen ari dela eta pista eraiki nahi duten eremua urpean geratuko dela; bada, alderdi horretako kide batek esan zuen urpean geratzerako inbertsioa jada berreskuratuta izango dugula. Inbertsio ekonomikoak dira, eta irabaziak ematen badituzte egitea merezi du. Elurra ardatz duen eredu 2040an agortuko bada, 2030ean Jokoak egiteko baliatu, ahalik eta irabazi gehien atera eta 2040an itxiko dugu poltsikoak beteta ditugula. Hori da gutxi gorabehera haien ikuspuntua. Apurka amaitzen ari den negozioa da, eta pentsatu beharrean nola eraikiko dugun alternatiba bat progresiboki eta trantsitiboki, hori baita logikoena Pirinioen ikuspegitik, inbertsioaren ikuspegitik hartzen dira erabakiak. ●



# Shakespeareren arabazozoak Central Parken




**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**N**ew York, 1890eko martxoaren 6a. Amerikako Aklimatazio Elkarteak kideek, Eugene Schieffelin presidentea buru zutela, 60 arabazozo askatu zituzten Central Parken, hiriaren bihotzean. Lehen aklimatazio elkarteak Parisen sortu zuten 1854an eta berehala beste hainbat hiri eta herrialdetan antzeko erakundeak sortu zituzten. Aklimatazio elkartearen helburua “eskualede jakin bateko biodibertsitatea munduko beste toki batzuetako animalia eta landareekin aberastea” zen. Asmo onarekin jarduten zuten aklimatazio zaleek, baina, egun dakigunez, espezieak nahasteak hondamen ekologikoa dakar.

Eugene Schieffelinek (1827-1906) bi zaletasun zituen: txoriak eta Shakespeare. Baita bi pasio horiei emateko nahi adina denbora eta baliabide ere; industria farmazeutikoan aitzindari izan zen familia aberats batekoa zen. Eta halako batean, bi zaletasunak batu zitzaizkela bururatu zitzaion, horretarako Aklimatazio Elkartearen zuen kargua baliatuz: Shakespeareren obratan aipatzen diren txori espezie guztiak sartuko zituen AEBetan.

Espezie autoktonoen mesederako, elkartekideen eta presidentearen lehen ahaleginek porrot egin zuten: hegatzabala, txoka eta birigarroa ez ziren ugaltu ingurune berrian. 1890eko negu amaiera hartan askatutako arabazozoekin ere berdin gertatzen ari zenez, hilabete batzuk geroago beste 40 ale utzi zituzten



MARTIN DROESHOUT ZAHARRA / HENRY E. DRESSER

Eugene Schieffelinek bi pasio zeuzkan: Shakespeare (ezkerrean) eta txoriak (eskuinean, arabazozo pareak). Bi zaletasunak elkartzea bururatu zitzaionean, nahi gabe, hondamendi ekologikoa eragin zuen.

parkean. Alferrik, hurrengo negu hurbildu ahala arabazozoak banan-banan erortzen hasi baitziren.

Baina ale gutxi batzuek, ironikoki, Central Parken bertan dagoen Historia Naturalaren Museoan aurkitu zuten babesa. Negu hura gaintu zuten, eta hurrengoak ere bai, eta 1900 urterako hiri guztian hegan ikus zitezkeen Europatik eramandako txoritxoak. 1920ko hamarkadan AEBen ekialde osoa hartu zuten. Eta 1950 inguruan, Kaliforniara iritsi ziren, hau da, herrialdearen beste muturrera. 1960. urtean arabazozoek

aire istripu bat eragin zuten; hegazkinak saldo batekin topo egin, kontrola galdu eta lurra jo zuten, tripulazio osoaren heriotza eraginez.

Baina zorigaiztoko pasadizo horrez gain, arabazozoen izurriak ondorio larriagoak ere eragin zituen eta eragingo ditu. Egundik 200 milioi arabazozo inguru bizi dira Ipar Amerikan. Labore lurrak suntsitzen dituzte eta milioika dolarretako galerak eragin nekazaritzan. Gainera, gaixotasunak zabaltzen dituzte, eta haiekin lehiatu ezin duten bertako espezie asko desagertzeko bidean jarri. ●

## 4.000 urteko emakume suediarra

1923an emakume baten eskeletoa aurkitu zuten Suedian. Eskeletoa oinarrituta, eta 3D teknologiarik eta Oscar Nilssen paleoartistaren eskuari esker, Lagmansörengo emakumea eskultura hiperrealista da orain. Baina Helena Gjaerum arkeologoaren ekarpena ere ezinbestekoa izan da, eskeletoaren DNA

oso hondatuta baitzegoen, eta jantzien arrastorik ez zutelako topatu. Gjaerumek Neolito amaierako klima eta fauna aztertuta ondorioztatu du emakumeak zer jantzi eta osagarri erabili zituen, eta migrazio mugimenduetan oinarrituta erabaki du azalaren, ilearen eta begien kolorea. ●



OSCAR NILSSON, VÄSTERNORRLANDS MUSEUM





## AZOKA



# Inor da inor

**ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA**

**E**uropak badu zer landua, zer hausnartua eta zeri ekina orain ere. Pertsonalki ez naiz oso abila geopolitika kontuetan eta kosta egiten zait pertsona arruntok ikusten ditugun jokaldien atzean dagoen tablero ezkutua ulertzea. Dakidana da interes handi batzuen borrokan mugitzen diren fitxek jendea beren herrietatik alde egitera behartzen dutela. Bai Ukrainan, bai Sirian, bai Ruandan. Ihesean gure auzora datozen pertsona hauen artean, baina, ez al dugu bi mailatako herritarren banaketa egiten?

Beren lurretan bizi ezinakarri ditu gurera migratzaileak. Ez dut uste inork gustuz jartzen duenik bere bizia arriskuan itsasontzi zahar batean sartu eta egunak uretan, noraezean pasatzeko. Eta hemen ez dituzte gauzak askoz errazago topatzen. Ilegalak dira. Paperik gabek. Paperik ez baduzu, ez duzu lanik. Lanik ez baduzu, ez duzu paperik. Ahal

dutenean egiten dute lan. Kale-saltzaille moduan ikusten ditugu asko, eta batzuk hasiak dira elkarteetan antolatzen. Mbolo Moye Doole elkarte dugu kasu, ARGIArekin *Inor ez da ilegal*a proiektua martxan jarri zuena duela lau urte.

## 'INOR EZ DA ILEGALA' PROIEKTUAK PAUSO BAT GEHIAGO

Denda fisikoetara egin du salto proiektuak. Orain lau urte serigrafiatu ziren lehen kamisetak eta arrakasta handia izan zuten. Ondoren etorri ziren poltsak eta jertseak. Denak argia.eus atariaren Azoka atalean, internetez salduak, Durangon edo beste postu zehatzen batean saldu zirenak salbu.

ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzan denda fisikoa ere ireki dela duela gutxi idatzi genuen, eta nahi duenak aukera izaten segitzen du goizetan hara gerturatu eta ARGIAren produktuak ikusi edo erosteko.

## Bidean

*Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo*

Koldo Rabadan Izagirre irakasleak liburuak aurkeztuko die Baztango herrietako eskolei

🕒 **Apirilaren 17an** 15:00etan

📍 **Baztan** Lekaroz

## Txori Urdinak

*Espetxearen erretratu bat Santi Cobos presoaren ahotik*

Liburuaren aurkezpena eta solasaldia "Espetxe sistema eta zigorraren kultura: kritikak.. eta alternatibak?" izenburupean, Zigor Olabarria kazetariaren eskutik.

🕒 **Apirilaren 27an** 19:00etan

📍 **Iruñea** Laba espazioa

## Ez gara kolonialistak, baina...

Axier Lopez kazetariaren hitzaldia, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrenaren oinarri:

🕒 **Maiatzaren 4an** 19:00etan

📍 **Arrasate** Kultur Ate

Orain, baina, *Inor ez da ilegal*a produktuak Euskal Herriko bost hiriburu-tan eskuratu ahalko ditugu. **Karrikiri** euskal dendan (Iruñea), **Epaiska** elkartean (Baiona), **Mara-mara** liburuak-en (Gasteiz), **GureHaizeak** ile-apaindegian (Donostia), eta **Zirika** kultur elkarteetan, **La tienda comprometida** dendan, **Saha** dendan eta **Laboren** (azken lauak Bilbon). Horrez gain, **Urdin** liburu-dendan (Irun), **Basajaun** liburu-dendan (Villabona) eta **Amillena** Arrazolako bentan (Atxondo) ere aurki daitezke kamisetak, poltsak eta jertseak.

Internet bidez azoka.argia.eus atarian, Lasarte-Oriako ARGIAren lokalean edo arestian aipatu saltoki horietan guztietan izango dugu material hau erosteko aukera. Eta hau irakurrita, saltoki edo elkarteren batek bere espazioan materiala salgai jartzeko aukera ikusten badu, deitu dezala 943 37 15 45 zenbakira (ARGIAko bulegoak). ●



# ZAILDUTAKO AZALA BEHAR DU!



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

zerdialdi berriak landareak piztu eta suspertzen dituen moduan, gu geu ere beste nor gara uda atari honetan. Tenperaturaren igoaldia eta egun argia gaua baino luzeagoa izatea ez dira alferrik gure azalaren sentikortasunak azkarren antzematen dituenetako eraginak; hasteko, horiek berak larruzal gehiago erakustera hertsatzen digutelako...

Ekosistema osoa mugitzen dute horrelako aldaketek. Argiak, tenperaturak, ur aukerak eta abarrek denongan dute eragiten. Zikloei ekiteko edo amaitzen hasteko seinale adierazgarriak dira. Udazaleak direnek orain hostaje berria eman, loraldia prestatu eta fruituak eta haziak eman behar dituztenerako jakiak metatuko dituzte. Neguzaleek bero hauekin sasoi amaituko dute, hostajea ihartu edo bere horretan eutsi eta fruituak eta haziak barreiatu. Gure inguruko landare gehienak udazaleak direnez, oraintxe bizitzen ari gara sasoi berrirako piztaldia, bizitzeko grina suspertzen da eta zaigu.

Landareen berpizkundearekin batera beraiekin bizi diren guztiak ere biziberrituko dira. Adibidez, landare horiek janaz bizi diren animalia belarjaleak. Baita sustraiak, hostoak, azalak eta abar jaten dizkieten intsektu eta abarreko izurriteak ere. Jaki aukera handia izango da orain, eta gehienak orain umatu eta ugalduko dira. Animalia horiek jango dituzten beste



Silizio mineralak landarearen gainazalean geruza gogor bat osatzen du, gaitzen sartzea galaraziz. Azeribuztanak eta asunak silizio ugari dute eta gero eta gehiago erabiltzen dira landareen azala indartzeko.

animaliak ere gozo ibiliko dira: harrak jango dituzten txoriak, sataginetan egingo duten urubiak, sitsak ehizatuko dituzten saguxarrak eta abar.

Landareen iratzarraren zain badira beste isilagoko eta ezkutuagoko batzuk ere. Landare horiei erasoko dieten gaitzak. Negua nola-hala igaroko zuten aterperen batean edo landarearen soinean bertan, eta landareekin batera beraiek ere harrotzen dira. Kimu berriak edota loreak sortzeko begiak irekiko dituzte, eta irekiera hori baliatuko dute gaitz batzuek landarearen barrunbeetara sartzeko. Mertzikondo edo muxikondoari (*Prunus persica*) erasotzen dion lepraren gaitzak (*Taphrina deformans*), adibidez, taktika hori erabiltzen du.

Beste gaitz batzuk lasaiago ibiliko dira. Erasoa hobeto prestatzeko denbo-

ra hartzen dute. Landareak uda etorri aurretik eguna luzatzen ari den sasoi amaitu arte luzatuko dituen kimu berriak zainduko dituzte gehienek, eta samur, gori, gozo sumatzen dituztenean eraso eta joko dituzte. Azal mehea edo zauritua igaro eta sartuko dira. Landare-zainaren lan nagusia sarrera hori oztopatzea izango da. Horretarako lagun ezin hobe dugu silizioa. Silizio mineralak landarearen gainazalean geruza gogor eta gotor bat osatzen du, gaitzen sartzea galaraziz eta uxatuz. Asunak (*Urtica dioica*) eta azeribuztanak (*Equisetum telmateia*) silizio ugari dute, eta bere urak edo mindak gero eta gehiago erabiltzen dira landareen azala indartzeko eta landareak bere kaxa gaitzei aurre egiteko gai izan daitezten. Zaildutako azala, gaitza dakarren ondoarentzako zaila. ●

## ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euzkadi

Babesleak:





ZANBRANAKO ENTSEGU-LURSAILA

# FRUITU LEHORREN EKOIZPENA INDARTZEKO EGITASMOA ARABAN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**G**atzagak datozkigu burura Añanaz hitz egitean. Bai, ezaguna da bertako Gatz Harana, baina inguru horietan gatzetik harago ere bada gauza gehiago. Zanbranan, esaterako, Añanako Kuadrilan, 2019tik fruitu lehorrak ekoizteko entsegu-lursaila martxan dute, hainbat intxaur, arbendol eta hur motekin probak egiteko. Añanako Landa Garapenerako elkarteak Zanbrananako udalarekin, UAGA nekazarien elkar-tearekin eta NEIKER ikerketa zentroarekin elkarlanean abiatu zuen proiektua. Orain arte jasotako emaitzekin pozik daude, eta fruitu lehorren ekoizpenak zonaldean etorkizun oparoa izan dezakeela aurreikusten dute. Aukera interesgarria, EAEn urtetik urtera fruituon kontsumoa %5 igotzen dela kontuan izanda.

## IKERKETA ETA FORMAZIOA

“Otsailaren bukaeran eta martxoan nekazarietzako formazio saioak antolatzen genituen, inguru honetan zerealaren, patataren, erremolatxaren eta beste zenbait laboreren maneiuaz jakintza handia dagoelako, baina ez hainbeste eskoldun fruitu lehorrenaz”, azaldu du Esther Durana Duque Añanako Landa Garapen elkartearen teknikariak. 30 nekazari inguru batu ziren



informazio saio teoriko-praktiko horietara, eta interesa badagoela sumatu dute antolatzaileek. “Arabako Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak laguntzak atera dituzte landaketa horietarako, beraz, aukera on bat ari da irekitzen alor horretan”, gehitu du.

Laboreen dibertsifikazioa sakontzea eta nekazariari aukera berri bat irekitzea dira egitasmoaren bultzatzaileen helburuak. Izan ere, EAEn fruitu lehorren 200 hektarea inguru egon arren, ia guztia kontsumo propioarako da, eta inork gutxi komertzializatzen du. “Erkidegoan kontsumitzen den fruitu lehorren %20 soilik da bertan ekoiztea, eta berez, datu hori hobetzeko aukera handia dugu”, dio teknikariak.

## HAINBAT EKOIZLE DAGOENEO MARTXAN

Hotzari eta izozteei aurre egiteko gai diren bariatateak ari dira probatzen Añanako lursailan, baina beste eskualde batzuetarako egokiak direnak ere aztertu dituzte.

Proiektu pilotuak hartzen duen hektarean, hiru bariatateko 144 intxaurrondo, zortzi bariatateko 144 hurritz eta lau bariatateko 72 arbendolondo jarri dituzte. Momentu honetan, lursaila ekologikorako trantsizioan dago, datorren urtean amaituko du prozesua. Zuhaitzak ekoizpen berriz, hemendik bizpahiru urtera egotea espero dute. “Ordurako, bertako fruitu lehorrak modu bateratuan komertzializatzeko bideak lantzen hasi beharko gara”, azaldu du teknikariak.

Zanbranan proiektuaz gain, lehena-gotik ere fruitu lehorren hiru hektarea lantzen dituzte Armiñonen Torre anaiek, eta honezkero beste hainbat ekoizle ere hasi dira. “Zanbranan bertan eta Berantevillan bi ekoizle hiru hektarea landatu dituzte, adibidez, eta badirudi pixkanaka badoala indarra hartzen”, dio Duranak. Pauso txikiz, baina EAEn kontsumitzen den fruitu lehor kopurua bertan ekoiztea da proiektuaren azken helburua. ●



**endanea**  
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

Gozatu  
udaberria

Txukundu zure txokorik  
kuttunenak eta goza ezazu  
udaberriaz etxean ere.

Online denda





## EMAKUME IDAZLEAK XX. MENDEKO ITALIAN

# Alda Merini:

## *harriduraz begiratzeko ahalmena*

Alda Merini (Milan, 1931-Milan, 2009) poeta italiarra izan zen. Lan asko argitaratu zituen, tartean hamarnaka poesia liburu eta bi-hiru autobiografia (*L'altra verità. Diario di una diversa, La pazza de la porta accanto eta Reato di vita. Autobiografia e poesia*).

 AINHOA ALDAZABAL

**S**usa argitaletxearen Munduko Poesia Kaierak sailean argitaratu dute lehen aldiz Merini euskaraz. Aiora Enparantza Armentiak egin du italieratik euskararako zubi lana eta 60 poema irakur ditzakegu bertan. Lan ugariren antologia bat da, baina zoritxarrez ez da zehazten jatorrizko zein liburutatik hartuak izan diren –italierako bertsoak ezagututa hainbat liburu identifikatu ahal izan ditut: *La terra santa, La presenza di Orfeo, Destinati a morire, Ballate non pagate...*–. Susaren webgunean poemon italierazko bertsoak ere irakur ditzakegu. Lan bikaina egin du itzultzaileak, Meriniren konplexutasuna zuhurtziaz eta gertutasunez ekarri baitigu.

Konplexutasun horren adierazle da proposatzen dizkigun munduen aberastasuna. Ere-

mu semantikoei begiratu gero, alde batetik, erlijio katolikoarekin zerikusia duten hainbat hitz aurkituko ditugu, batzuetan izenburuetan: *ama birjina, genesia, lur santua* eta abar. Hitz biblikoen erabilerak atzera bota ditzake irakurle batzuk, baina askotan maila sinbolikoan baliatzen ditu. Gure liburuan ez dagoen *Tu sei Pietro* poeman honako hau adierazten du berak: *Ché cristiana son io ma non ricordo dove e quando finì dentro il mio cuore tutto quel paganesimo che vivo* (“ze kristau naiz ni, ez badut gogoratzen non eta noiz sartu zen nire bihotzean bizi dudana paganismo guztia”).

Poetaren izaerari lotutako hainbat poema ere badauzkagu. Poeta izatea zer den, zer izan behar den, nola bizi den kontatzen digu Merinik bertso hauetan: *Poetek gaez egiten dute*









lan, Poesiari kantua, Poemarik ederrena, nire poesia sua bezain kartsua da. Bere identitatearen zutabe garrantzitsua da eta nabaritzen delakoan nago; hortik eta horretarako idazten du: *poesia bizitzaren identitate// funtsezko eta bakarra // berak mugitzen zaitu // titiritero aditu* (22. orrialdea). Poeta-  
ren ikuspegi erromantiko hau idazle gehiagorekin partekatua dela iruditzen zait eta Gloria Fuertesekin paralelismoa aurkitu diot nik. Azken horrek *Sale caro ser poeta* poeman horrela dio: *comienzo a ser comida por las sombras// las horas se me pasan sin bostezo// el dormir se me asusta se me huye// -escribiendo me da la madrugada-*. Merinik, gaueko idazketari buruz horrela idazten du: *Poetek gauez egiten dute lan// denborak presarik ez duenean euren gan, // jendetzaren zarata isiltzean// eta orduen lintxamendua amaitzean* (21. orrialdea).

Ikusten ari garen bezala, Meriniren obra eta bizitza banatzea ia ezinezkoa

---

*Meriniren obra eta  
bizitza banatzea  
ia ezinezkoa da:  
psikiatrikoan bizi  
izandakoak etengabe  
agertzen dira haren  
poemetan*

da. Antologia honetan ere aurkituko ditugu eroetxe, zoro, elektroshock eta psikiatrikoetara eramango gaituzten hitz eta poemak. Autorearen bizitzako pasarte oso garrantzitsuak izan ziren psikiatrikoan pasa zituen 20 urteak –aldi desberdinetan banatuak–. Gertatu

zenaren inguruko hainbat bertsio irakurri dut eta ez da erraza irakurketa sinplistikarik ez egitea. Oso gazte ezkondu zen eta lehen senar harekin harreman gatazkatsua izan zuela diote askok. Gizona jeloskorra omen zen eta gainera beste emakume batzuekin ere egoten omen zen. Bien arteko iskanbila baten ostean gizonak anbulantziari deitu, eta besterik gabe Merini psikiatrikora eramateko baimena eman zuen. *Reato di Vita. Autobiografia e poesia* liburuan kontatzen du hau Merinik, nahiz eta garrantzia kentzen ahalegintzen den eta senarraren jokabidea justifikatzen duen. Phyllis Chesler autorearen *Mujeres y locura* liburuan oso ondo kontatzen du nola mende hartan zoroetxeetan zeuden emakume gehienek ez zeuden zoroak. Emakumetasunaren irudi eta rolerik bat ez egitearren senide edo senarrek zigortuta eramaten zituzten. Izan ere, gogoz kontra entzerratzea baimenduta zegoen eta ohiko praktika zen. Hainbat idazle amerikarren adibideak jasotzen





Elite kulturaletatik aparte kaleko jendeak irakur zezan nahi izan zuen eta hala gertatu zen. Poeta ezaguna, famatua eta maitatua izan zen bere herrian. Argazkian, Meriniren etxe-museoa, irakurleen oroigarri beta.

dira aipatutako liburuan –Sylvia Plath eta Zelda Fitzgerald, besteak beste–, baina Alda Merini ere sistema horren biktima ez ote zen izan galdetzen diot neure buruari. Emakumeen kuriositate intelektual eta sormenerako gaitasuna itzaltzarekin zerikusia zuen.

Hala ere, bere esperientziak sortutako harridurak salbatu zuela esaten du. Eta gertatzen zena harriduraz begiratzeko ahalmenak, bizia salbatzeaz gain, salaketa argi eta distiritsuak egitea ere ahalbidetu zion. Terapien deshumanizazioa torturatik gertuago zegoen terapiatik baino. Elkarrizketaren batean irakurri diot zoroetxeak zoratu zuela bera. Batzuetan metaforen bitartez abordatzen du gaia: *Lur santua*-n, adibidez, eroetxea Jeriko eta Palestinarekin alderatzen du. Baina bestetan deskribapen gordinagoak egiten ditu, esaterako: *han behean, kondenatuak hiltzen ziren lekuan// infernu dekadente eta eroan// eroetxe infinituan// (...) Eroetxean// buruko odolzetatuek// garrasiak itotzen*

*zituzten lekuan// hor behean Jainkoa ikusten zenuen// ez dakit, zure egundoko eromenaren// ideia zaharregien artean* (31. orrialdea). Lerroekin behe-ranzko norabidea markatuz, infernura bidaia bat egiten duenaren ahotsa ekartzen digu. Edo: *Erizain zerriek// gure gonak altxatzen zituztenean// eta keinu egin, keinu berdeak egin// une horretan bertan// lapidazioa nahi izaten genuen* (39. orrialdea).

Maitasunaz eta heriotzaz ere idazten du. Bere bizitzako zenbait pasartek eragin dioten minaz, sufrimenduaz. Irakurketa desberdinak dituen liburua da esku artean izan dudana hau eta sakontasun maila altukoa da. 53. orrialdeko poema bereziki gustatu zait, Meriniren nortasuna islatzen duela uste dudalako. Ez dut transkribatuko, liburuan irakur dezazuen, dasta dezazuen letraz letra.

Denentzat idatzi nahi izan zuen Merinik. Elite kulturaletatik aparte kaleko jendeak irakur zezan nahi izan zuen eta hala gertatu zen. Poeta ezaguna, fama-

tua eta maitatua izan zen bere herrian eta Dario Fok Nobel sarietarako proposatu zuen duela urte batzuk. Bera izan da kritikariek gehien aztertu duten poeta, askotan beste emakume askoren lanak liburuetatik kanpo utziz –Antonia Pozzi, Amelia Rosselli, Maria Luisa Spaziani, edo Goliara Sapienza besteak beste–.

XX. mendeko Italiako panorama literariotik beste hainbat autore hauta nitzakeen. Euskarara ekarriak dauden artean izan zitezkeen Natalia Ginzburg edo Adela Turín. Eta XXI. menderaino iristen denik ere badugu euskaraz: Susana Tamaro edo Elena Ferrante, besteak beste. Baina hautatutako hauek ezezagunagoak zirelako irudipena nuen eta ezkutuko gordelekuetatik atera nahiz izan ditut: Lorenza Mazzetti, Franca Rame eta, gaurkoan, Alda Merini. Nork bere nortasun eta idazkerarekin egin zion aurre mendeari. Eta memoria egin dute atzera begira barik barrura begiratu. ●



LIBURUA

# Eskandalua



## LANDA ALDEKO NESKAK

EDNA O'BRIEN (ITZ.: GEMA LOPEZ LAS HERAS)

EREIN ETA IGELA, 2022

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**L**anda aldeko neskek 1960an idatzi zuen O'Brienek, 30 urte zituenean. Liburu honekin ireki zuen autoreak bere ibilbide literario luzea –30 liburu inguru idatzi zituen–, askoren lehen izan zen Gema Lopez Las Herasek euskarara lehen aldiz ekarri duen hau. Ondo ekarri ere.

Protagonistak beraien artean oso desberdinak diren bi neska dira. Caithleen baserritarra da eta etxeko giroa aita alkoholiko eta biolento batek inposatzen du. Ziurrenik horregatik adierazten du hasieratik bere aske izateko nahia –25.orria: "Kanpora atera nintzen liliak batzera. Harmailetan gelditu nintzen zelaietara begira, eta, betiko moduan, askatasun eta gozameneko ufada bat sentitu nuen..."–. Baba albaitariaren alaba da eta maiz mespretxuz

hitz egiten dio lagunari, harro jokatzeko du berarekin. Hala ere, lagunak dira eta liburuan elkarrekin egingo duten bidaia kontatuko zaigu. Komentu batean barneko ikasle gisa sartzen dituzte eta bertatik ateratzeko trikimailuak asmatu beharrean daude.

Espazioek ere berebiziko garrantzia dute liburuan. Hasierako herria txikia da. Denek ezagutzen dute elkar eta moral kolektibo oso zehatza dago ezarrira. Txutxu-mutxuek, esamesek eta aurreiritziek pisu handia dute herrian eta pertsonaien nortasunean. Landa eremua espazio itogarria da bi emakume hauen ztat. Komentua irlandar jendartearen zurruntasun erlijiosoaren isla da eta beste behin patriarkatuak emakumeentzat duen rola erakusle bihurtzen da espazioa. Hiria, Dublin, askatasunaren

sinbolo da, ordea. Aukera berrien espazioa. Gustura irakurri dut hirira alde egiteko hautua egiten duten emakumeen istorio hau, beraien kontzientziak eta argitasunak hasieratik harrapatu bainau.

*Landa aldeko neskek* eleberri gisa idatzi eta argitaratu zen garai hartan, baina gaur egun badakigu kontakizunak autorearen bizitzako pasarteak dauzkala. Trilogia beste bi liburuk osatzen dute: *The lonely girl* eta *Girls in their married bliss*. Garaiko kritikari ez zitzaion proposamena batere gustatu; izan ere eliza katolikoak Irlandan zuen boterea eta emakumeen gaineko kontrol izugarria salatzen du. Herriko apaizak hainbat ale erre zituen plazan eta zentsuratu egin zuten O'Brienen eleberria. Eskandalua sortu zuen... Eta guri gustatu. ●





MUSIKA

# Gonbidapena onartu



BI BURRUNDARA

XALBA RAMIREZ


**B**ehinola antzoki batean sute bat piztu zen bastidoreen artean. Pailazoa eszenaurrera atera zen berria ematera, baina publikoak txiste bat zela pentsatu zuen, eta gogoz txalotu zuen. Pailazoak albistea errepikatu zuen, eta txaloak are atsegingarriagoak ziren. Horrela uste dut hilko dela mundua, txistea dela pentsatuko duen jende agurgarriaren bozkario orokorraren artean”.

Ez dabil urruti Kierkergaard, ikusita-koak ikusita. *Eskarnio* kanta da horren errepresentazio sonikoa. Lekuz kanpo dauden algaren lekuz kanpokotasuna. Irri egiteko unea zein den ikasi behar dugu eta. Denak du bere momentua.

Elena Ramirez, Andoni Olaetxea eta Unai Pelayoren azken lana da *Bi Burrundara* (Balio Dute, 2022). Olaetxea eta Pelayok 2020an kaleratu zuten *Burrundaria* lanaren jarraipen moduan uler

daiteke. Oraingoan, ordea, bi gitarrez gain Ramirezen pianoa du lanak, armonia aberatsagoak, tentsioa eta une argiagoak bilduz inprobisazio instrumentaletan. Inprobisazio totaletik abiatu baitira kantuak eta grabaketak, “atera ziren moduan”. “Horregatik ezin dira zuzenekoetan errepikatu”, dio Olaetxeak.

*Lehena bi*-n ohikoagoak dituzten erritmoetatik abiatu arren, tonu maioretara jauzi egin eta kolorez betetzen da lana. *Makur*-en lurrera gerturatze-ko gonbita egiten digute, belaunikatuz ia. *Kolpez*-ek erritmo epikoagoa du, amaierako lasaitasunera iritsi arte. Naretasuna apurtuko du *Alde bi* dantzagarriak(?). *Amaltea*-n zaratak hartzen du espektro zabalgoa, Kubrickek imajinatutako espazioaren soinua imitatuz. *Lodi*-n nabari da gehien Ramirezen pianoa. Lirikaren eta bluesaren artean,



## BI BURRUNDARA

BI BURRUNDARA

BALIO DUTE, 2022

arnasari emanez garrantzia. Erresoluzioaren zain egoteak merezi du, norabiderik gabe dabilen *flâneur*-ak topatzen duelako, azkenean, non hartu atseden. Aulki bat izan zitekeen, udaberri hotz honen eguzkitan.

Leihotik begiratzen dut eta zentzugabeko eraikinak ikusten ditut, formak eta koloreak ausaz eginak, ganorabako. Zentzua eman behar diet, zentzuaren arabera pentsatzen dugulako. Etxe bati zerk ematen dio zentzua? Ematekotan, zentzua bizitzak emango dio. Eta, horretarako, bizi egin behar.

Disko hau ez da “gustatu zaizu?” terminoetan epaitu behar. Gonbidapena da, norberak bere zentzuz eta zentzumenez betetzeko. Entzunaldi bakoitzean ezberdinak garenez gero, entzunaldiz entzunaldi garatzeko aukera ematen diguna. Esker dezagun oparia. ●



# Galderak ezerezera

✍ IÑIGO SATRUSTEGI

📷 DOSPORDOS

**A**urreneko aldia da Oihanederreko emanaldietan hainbeste gazte ikusten dudana. Publikoaren artean, bertsozale, marika, bollera eta euskal filologia ikasleak nagusi. Edo denak bat direnak. Hasi dira kantuan eskeleku batzuen atzetik, eta taularatu dira bi gorputz bitartzat jo genitzakeenak, elegante jantzita: belusezko jantzi gorria emeak, trajez jantzirik harra. Soldatzeko maskarak daramatzate, ordea.

Lehen kontakizun modukoa intentsua da, Anerrek patinatzailearen istorioa kontatzen dio amona duen Leireri. Serio dago bigarrena eta solemnitater erantzuten dio kantuan, ezerezera begira. Bigarren piezan Haizea eta Oihana etorri dira, haien bikitasunaren

esperientzietan oinarritutako elkarrizketa neurtitzetan kontatzera, elkar imitatzen. Umorea eskertzekoa da, lehenengo zatiaren ondotik.

Sariketa bat antzeztu dute Euzkitzeren semeak, *bikiek* eta bollera ematen ez duenak. Soziedadeko gizon gipuzkoarren satira artean, puntu batek harapatu du nire arreta: "Ez dago lekurik inorena denik/ baina badago lekurik duen inor". Minaz ari dira eta bihotzetik edo hezur-haragizko gorputzetatik kantatzeaz. Gai serioak serio jorratzeaz. Kontrako ezarririk joandako ideiak *atropellatu* beharraz. Alkaizaren agur jada mitikoa ekarriz.

Zutitu egin dira aulki gainean eta disidentziatik konpromisoa, gaztetasuna,

## 'ERRE' IKUSKIZUNA

**NOIZ:** Apirilak 3

**NON:** Oihaneder euskararen etxea (Gasteiz)


loditasuna eta generoa hartu dituzte hizpide. Labankada batzuk erori zaizkie orduan Jon Maiari, Pagadiri, Felix Zubia-ri eta Bi balakoei. Haiek balio badute, "zergatik ez naiz sentitzen bertsolari?". Barrez lehertu da Oihanederreko sarre- ra. Bitasunaren kontrako aldarria ere egin dute, eta beste gai asko ere ukitu.

Baina amaierako galdera-kateari hitz gutxi batzuk eskaintzea merezi du. Galdera bat bestearen atzetik, eta interpe- latutako gorputz asko. Baina nago atzo bildu zen inor gutxi zuela proposatuta- ko galderen erantzunik. Are, *eRRE* ikus- kizunaren ikusle potentzialen artean ez daudela laukotearen hitzak jaso behar- ko lituzketen gorputzak. Egia esateak beste erretzen du entzuteak, antza. ●





# Hitz gezidunak

|  |   |   |   |   |   |   |  |
|--|---|---|---|---|---|---|--|
| ADIERAZPIDE GRAFIKOA<br>ATEN DUENA                         | ADIURRE, IZAERA<br>ZEREALEN ZURTOIN               | UZKUR, ZAPALDU                              | BERKE-<br>LIOAREN IKURRA<br>EZPELETAKO JAKI                                       | SASOIRA HELDU<br>ERABAT BETE                | JAUSTEKO<br>PERTSO-<br>NAIAREN IZENA                              | LAGUNTZA<br>BEHAR, ZEREGIN                                |  |
|  |   | KAKALARDO<br>ITALIAKO IBAI<br>NAGUSIA       |   |   |   |   |  |
| POLITA, DOTORE<br>LANDARE IGOKARI                          |   |   | LARREAK, ZELAIK<br>ERRESISTEN-<br>TZIA  |   |   |   |  |
|  |   |   |   | GIPUZKOAKO<br>MENDIA<br>LEHERGAI<br>EZAGUNA |   |   |  |
| ZORRAREN ORDAINA   | MODU<br>ATZIZKIA<br>METEORO-<br>LOGIAKO<br>LERROA |   |  |   |   | ROENTGEN<br>NAFARROAKO<br>HERRIA                          |  |
|  |   | ARTAZI,<br>GURAIZE                          |   |   |   | GAIZTO, OKER<br>LUKI                                      |  |
| SUFREAREN<br>IKURRA<br>BOTIKA<br>KANTITATE                 | LEHEN<br>BOKALA<br>URAZPIKO<br>DETEKTA-<br>GAILU  |   |   |   |   |   |  |
|  |   |   |   |   |   | AGIRI<br>BANEUKA  |  |
| AHOTZ<br>PERTSO-<br>NAIAREN<br>ABIZENA                     |   | POLIZIA NAZI<br>XAKE<br>JOKOAREN<br>PUNTUAK | BEZALA<br>MAIZ ERRE-<br>PIKATZEN<br>DEN KEINU                                     | BYTE<br>ZERGA<br>EZAGUNA                    | USTEKABEA,<br>HARRIMENA<br>NAZIOARTE-<br>KO OLINPIAR<br>BATZORDEA | ERREPIKA-<br>TUZ, ALDABA<br>JOTZEAREN<br>ONOMATO-<br>PEIA |  |
|  |   |   |   |   | INTERJE-<br>KZIOA<br>NAIZEN HAU                                   |   |  |
| ... CASTRO,<br>POLITIKARI<br>KUBATARRA<br>HANDIPU-<br>TZAK |   |   | ADJEKTIBO<br>ANPEREAREN<br>IKURRA   |   |   |   |  |
|  |   |   |   | IBAI GAINEKO<br>PASABIDEAK                  |   |   |  |

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

|   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 |   |   | 7 | 4 |   |   | 8 |
|   | 7 |   | 6 | 5 |   | 2 | 1 |
|   | 2 | 6 | 1 |   | 8 |   | 9 |
|   | 8 | 1 | 9 | 2 |   | 3 | 5 |
| 7 |   | 5 | 4 |   | 3 | 8 |   |
|   |   |   |   |   | 4 | 1 |   |
|   | 4 | 2 |   |   | 1 | 9 | 7 |
|   |   | 8 | 2 |   |   |   | 3 |
|   |   | 7 |   |   | 4 | 6 |   |

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Herri bati dagokiona.
2. Heldu, atxiki (bizkaieraz).
3. Portuak, nasak.
4. Atarte, atalase.
5. Azeria.

|  |  |  |  |  |
|--|--|--|--|--|
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |
|  |  |  |  |  |

## EBAZPENAK

1. LOKAL
2. OBATU
3. KAIKAK
4. ATARI
5. LUKIA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 1 | 7 | 5 | 9 | 6 | 7 | 1 | 1 | 3 |
| 9 | 5 | 8 | 2 | 6 | 7 | 1 | 4 | 3 | 3 |
| 6 | 4 | 2 | 3 | 8 | 1 | 6 | 5 | 7 | 7 |
| 2 | 6 | 3 | 8 | 7 | 5 | 4 | 1 | 9 | 6 |
| 7 | 9 | 5 | 4 | 1 | 3 | 8 | 6 | 2 | 2 |
| 4 | 8 | 1 | 9 | 2 | 6 | 3 | 7 | 5 | 4 |
| 5 | 2 | 6 | 1 | 3 | 8 | 7 | 9 | 4 | 4 |
| 8 | 7 | 4 | 6 | 9 | 2 | 3 | 1 | 1 | 1 |
| 1 | 3 | 9 | 7 | 4 | 2 | 5 | 8 | 6 | 6 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| K | V | I | B | Z | U | Z | K | V | O | R | R | V | H |
| O | N | O | N | E | Z | I | L | U | V | A | V | R |   |
| E | T | N | A | B | E | S | T | E | N | N | V | S |   |
| I | O | B | L | S |   | Z | O | B |   |   |   |   |   |
| V | A | K | V |   |   |   |   | I | S | O | D |   |   |
| I | R | E | Z | V |   |   |   | V |   | S |   |   |   |
| R | V | Z | J |   |   |   |   |   | O | I | F |   |   |
| R |   | T | N | T |   |   |   |   | O | T |   |   |   |
| O | N | V | R | E |   |   |   |   | I | S | V | P |   |
| K | V | O | R | O | S | X | O | P | N | V | P |   |   |
| O | V | A | R | L | O | V | A | K | V | K | E | J |   |
| S | E | U | B | I | J | I | M |   |   |   |   |   |   |

# Mirari Martiarena Iraola

PIKOKETARRA



## LIBREA ETA BELTZA ERE BAI

“Umorea egitea ez da txorakeriak esatea. Nik umorea egiten dut, zerbait esan nahi dudalako. Eta umorea horretarako tresna bat da. Umoreak mina ere eman dezake. Umoreak librea behar luke, baina inor mintzeko helbururik gabe. Umorea goitik behera egin, edo alderantziz, egoera aldatu egiten da. Umoreak mugak ditu gainera. Oso garrantzitsua da jakitea zein asmorekin egiten den umorea. Umore beltza asko maite dut nik, baina jakin egin behar da non eta norekin erabili. Momentu eta leku egokia ote den aztertu behar da”.

## “Barrea ez dela eten behar esango nuke”

Binakako bakarrizketak egiten ditu Mirari Martiarena Iraolak, Idoia Torregarai kide eta lagunarekin batera. 2017an, Oiartzun Irratiko esatari eta kazetari lanak utzi, eta beldur pertsonalak gainditzeko kemena bildu zuen. Oiartzuarrak jakin bazekien umorea egin behar zuela. Handiek esaten duten gisan, “umorea kontu serioa” dela berresten du berak ere. Etxe honetan aurrez urrats batzuk eginak zituen, *Damutuko zaizute* saioan hain zuzen ere. *Luze edo motz* agerraldiarekin dabilta gaur egun, probintziaz probintzia, herriz herri.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  IRANTZU PASTOR

### Nola heldu zarete euskal umoregile erreferente izatera?

Irratian ari nintzela, har bat banuen barruan. ARGIAN *Damutuko zaizute* egin nuenetik, “Mirari umorea egin behar duzu” errepikatzen zidan lagun batek bi urtez segidan, eta nik ezetz. “Nola eginen dut hori nik bakarrik?”, pentsatzen nuen nire baitarako. 2017an, ordea, jautzia emateko baime-na eman nion neure buruari. Oiartzungo Iturriotz auzoko jaietan bakarrik egin nuen lehen saioa eta udazkenean bertan Idoiak [Torregarai] deitu zidan, abenduaren 3an zerbait egiteko Usurbilen, baina elkarrekin. Baietz esan nion berehala, denbora gutxi genuen ordea ezer prestatzeko. Hamabost egunetan idatzi genuen eta hamabost egunez entseatu genuen. Horrela sortu zen *Bakean dagoena bakean utzi* gure lehen eskaintza. Ondoren Lanku zerbitzuetara joan ginen, eta haiek ere baietz esan ziguten. Hala hasi ginen plazak egiten.

### Gorputza, berdintasuna, euskara... Horiek dira jorratzen

### dituzuen gaiak. Euskal Herrian bi emakume elkarrekin umorea egiten.

Bai, gu ez baikara aktoreak. Hori oso garbi dugu. Guk bakarrizketak egiten ditugu, eta hori agian ez da ohikoena izan. Euskal Herrian, antzezlan asko sortu dira umorea ardatz. Maila handia dago gainera, eta plazer bat da! Baina guk beste zerbait egiten dugu. Gurea ez da antzerkia, berriz baitiot: ez gara aktoreak. Ezberdina da. Zerbait duina izatea nahi genuen. Formatu ttikira zein handira egokitzen dena. Lehen sorkuntzarekin 150 saio inguru egin genituen, eta oraingo honekin ere *Luze edo motz*en bide beretik goaz. Oso pozik gaude.

### Nola hartu zaituzte publikoak?

Orokorrean oso ongi. Batzuk agian deseroso sentitzen dira. Umorea ere aldatu egiten baita herri batetik bestera. Gai batzuekin jendeak ez dio bere buruari irri egiteko baime-nik ematen. Egungo bakarrizketa saioarekin gogor hasten gara. Se-





“Gu Genero Saisetarik programatzen gaituzte talde feministek. Gizon umoregile bat, ordea, Kulturatik programatzen dute”.

xua, masturbazioa, menopausia... Batzuentzat ez da eroso, baina beste askorentzat bai. “Bazen garaia” ere esan izan digute. Eta egia. Atera ditzagun itzalean egon diren gai hauek mahai gainera, eta gogoetatzeaz gain, irri ere egin dezagun! Irri elkarrekin. Guk ez dugu deus asmatu, eguneroko gaiak dira. Kontua da zergatik den batzuentzat deseroso, zergatik den bitxia gai hauek oholtzara eramatea.

Bi emakume gara, eta horregatik bakarrik, emakumeentzat prestatuak emanaldia dela uste dute batzuek. Gu Genero sailetatik programatzen gaituzte talde feministek. Gizon umoregile bat, ordea, Kulturatik programatzen dute. Hor ezberdintasun handia dago. Bi emakume ikusten direnean kartelean, emakumeentzat dela pentsatu ohi da, eta gizon bat ikusi orduko publiko orokorarentzat dela sinetsita gaude. Hori apurtu nahi dugu. Badakigu etortzen denak ongi pasako duela, “baina jende gehiago etorriko balitz?” pentsatu izan dugu. Askotan gertatu izan zaigulako emakumeak soilik egotea.

### **Bakarkako biderik hartzea pentsatu duzu? Edo beste bikote batekin?**

Momentuz ez. Egia da beste lan batzuk hartzen ditugula, baina oholtza gainean Idoia eta nire artean sortzen dena magia da. Primeran pasatzen dugu elkarrekin eta hori iritsi egiten da publikora. Beste edozeinekin baino denbora gehiago pasatzen dugu elkarrekin eta kimika handia dugu. Baina ez diot aterik hesiten deus berriri. Honetaz bakarrik biziko bagina, beste kontu bat litzateke. Baina guretzat hau oso gustura egiten dugun osagarri bat da. Ez dugu ezetzik esaten. 25 saio izan genituen abenduan, pentsa! Erokeria da.

### **Barreari ezin eustea gertatu al zaizu?**

Bai, askotan. Gurea ez da emanaldi itxia. Badugu gidoia, baina formaz aldatzen du une oro. Oholtzan bertan, erabaki asko hartzen ditugu. Jendeak erantzuten duela ikusten duzunean harrotu egiten zara, eta azken batean zeuk ere irri egiten duzu lehertu arte. Batzuetan espero ez dudana zerbait botatzen du Idoiak eta ezin izaten diot barreari eutsi. “Barkatu” esan, irriz segi eta aurrera.

Publikotik ere kutsatu izan didate irria. Barrea ez dela eten behar esango nuke. Oso ederra da! Une horretan sortzen dena aske utzi behar da, eten gabe.

### **Noiz eman diozu baimena zure buruari umoregilea zarela esateko?**

“Egiten dut, gustatzen zait, ongi pasatzen dut”... esaten nuen hasieran. Oso ozen ez, nire baitan. Bertsotan bezala, kar-kar-kar! Hogei urtez bertso eskolan aritu eta “oraindik ez zara bertsolaria, ezta?”, esan ohi da. Horixe bera gertatzen zitzaidan. Enkarguak jasotzen hasi nintzen, lehen emanaldiarekin ederki genbiltzan, eta iaz *Barre libre*a saioko gidoilari izanak ere, neure buruari umoregile nintzela aitortzeko “baimena” eman zidan.

### **Oholtzak nekatzen du?**

Asko ematen dugu. Egun txarra ukan arren ere, oholtzara igo orduko ematen hasi behar duzu, horretarako deitu zaituzte eta! Berehala giro berezia sortzen da ordea. Lehen irriarekin egiten dut gora. Onena eskaini izanaren sentipenarekin amaitzea gustatzen zait. ●

# Euskal Herrian maskaraz

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**A**pirilaren 20an jaio zen Adolf Hitler eta apirilaren 20tik aurrera barrualdeetan ez da derrigorrezkoa izango maskara janztea Hego Euskal Herrian. Kasualitatea? Ez dut uste. Bale, Ipar Euskal Herrian martxoaren 14an kendu zutela, baina ze kointzidentzia, egun horretan jaio zen Billy Crystal, zeinak *führer*-aren aldean gizateriari hainbesteko kalterik eragin ez dion arren, ez daukan onura publikoen zerrenda oso luzea ere –nahiz eta gutxienez esan ahalko duen Oscar sarien galak aurkeztu zituela musukorik gabe eta, garai hauean inportanteagoa dena, masailekorik gabe: nire kondenaarik irmoena lerro hauetatik Bel-Airreko printzeari–.

Harira: beldur pixka bat ematen dit berriz ere jendea maskararik gabe leku guztietan ibiltzen hasteak, auskalo zer arrisku biologiko pilatu den bi urteotan sudurretik kokotserako tarte horietan. Ez naiz epidemiologoa, baina –aurreko hitz hauek ze modan egon ziren duela ez hainbeste, e?– iruditzen zait datorriguna, koronabirusa bezalakoa izango ez bada ere, beldurgarri samarra dela: gure lagun halitosia agertuko da eszenan bat-batean, bortizki, kontrolaezinko, eta ahaztuak genituen kiratsek jazarriko gaituzte munduaren ipurdiko azken zuloraino ihes egiten badugu ere. Ez dakit zeren zain dauden erakunde publikoak dokierki banatzen hasteko Fisherman's Friend karameluak. Eta desastre honen atarian, nazioarteko komunitatea isilik.

Egia esan, zenbat debate maskara dela eta ez dela. Izenetik hasita: maska, maskarilla, maskara. Gaztelaniaz artikulua femeninoarekin, frantsesez berriz maskulinoarekin; eta euskaraz, problema horietaz libratu, beste batean sartzeko: musukoa esan behar zela, *and I think it's beautiful* –baina egia esan ez,



eta orain hitza prentsan gutxiago erabiltzeko dugunez, lasai esan dezaket gauzak alferrik konplikatzeke gure gaitasunaren beste erakustaldi bat egin dugula kontu honekin–.

Beste gauza guztiekin bezala, maskarak erabiltzeko eran ere klaseak eta klaseak egon dira. Batzuen kasuan, apirilaren 20an kenduko duten maskara hori, zehazki hori, 2020ko apirilaren 20an jantzi zuten bera da. Eta, bueno, imajinatzen dut bereiztea prozesu konplexua izango dela: egun batean farmazian erosten duzu, bizitza berri bat hasten duzue elkarrekin eta konturatzen zarenerako, bizarra atera zaio. Eta orain etxetik badoala esaten dizu. Ai.

Beste batzuk libertinoagoak dira eta egunero aldatu dute, kolore guztietakoak dauzkate goizeroko arroparekin konbinatu ahal izateko, eta pentsatzen

du orain *outlet* bat egin beharko dutela. Material birziklatuekin arropa egitea modan dagoenez, igual hau da momentua negozio bat martxan jartzeko, nahiko seguru bainago euskal merkataria monopolizatu duten Ternua markako horietako batzuk juntatuta atera daitekeela Batmanen mozorro nahiko itxuroso bat hurrengo inauterietarako.

Izan ziren jantzi nahi izan ez zutenak. Izango dira kendu nahi ez dutenak ere. Haiei eskainitako ereserkiarekin amaituko dugu aste honetakoa: “Euskal Herrian maskaraz nahi dugu hitz eta jolas, lan eta bizi maskaraz eta hortara goaz; bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz. Maskara gabe esaidazue nola irtengo naizen plazara”, eta abar. Bai, Natxo de Felipe, badakit: egin berri dudanez honek ez du barkamenik merezi. ●





%100  
kotoi  
organikoa

19,5€

+ 4€  
bidalketa  
gastuak

Artikulu hauek erosita  
ekarpen ekonomikoa  
egingo diozu Bilboko Mbolo  
Moye Doole elkarteari.  
Atera aldarria kalera  
euskaraz eta wolofez!

Bidalketa gastuak 4€ eta 40€-tik gorako erosketetan, bidalketa doan.  
Hemendik aurrera erosketak BIZUM bidez ere ordaindu daitezke.

azoka.argia.eus 943 37 15 45



# ARGIA Azoka Liburuaren eguna

Apirilaren 11tik 24ra,  
ARGIA Azokako liburu guztietan beherapena!

Apirilak 23



## Sendabelarre dakitena

Garbiñe Larrea  
23,75 €



## Bidean

Koldo Rabadan  
13,30 €



## Txori Urdinak

Zigor Oleaga  
15,20 €



## Etxeko Landareak

Jakoba Errekondo  
23,75 €



## Bizi Baratzea

Jakoba Errekondo  
21,85 €



## Ez gara neutralak

Gorka Bereziartua  
13,30 €



## Berdea da more berria

Onintza Irureta  
13,30 €



## Pape Niang

Mikel Garcia  
13,30 €



## Zuloan

Urko Apaolaza  
13,30 €



## Komunitatean bizi

Lacol eta La Ciutat Invisible  
13,30 €



## Altza Porru

Jakoba Errekondo  
18,52 €



## Ilargia eta landareak 2022

Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga  
13,30 €

Bidalketa gastuak 4 €. Bidalketa doan 40 €-tik gorako erosketetan.  
Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke.  
Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik: 8:00-15:00.

azoka.argia.eus 943 37 15 45